

# hiruka

10  
URTE  
EUSKARAZ  
INFORMATZEN

216. zenbakia  
2025eko otsaila

LEMOIZKO SARA KOETXEKO JAIA

# Berriro ere zoriontsu Andra Mariko erromerian

20. orrialdea



**Uribe Kosta** Aitzindariak

**HIRUKA**  
aldizkariaren  
aurrekoei begira

6-9 | Erreportajea

**Getxo** Karla Llanos

«Galdu duguna  
baloratzeko balio du  
liburu honek»

24 | Elkarrizketa

**Lemoiz** Akaitze Kamiruaga

«Herriko  
memoriaren atal bat  
errekuperatu dogu»

32 | Kultura



Zure gustuko

# ikasketak euskaraz

eta etxetik gertu

# yhhd

ikasi "euskaraz"  
"yahi"  
"dudalako"

EUSKARAZ IKASI ETA BZ MAILA LORTU



[nahidudalako.eus](http://nahidudalako.eus)



CURRICULUMA ABERASTERO GILTZA

EUSKARA

AUKERA ZURE ESKUETAN

BILATU EUSKARAZKO IKASKETAK;

Bizkaian euskaraz eskaintzen diren  
Batxilergo zein Lanbide Heziketako ikasketak  
**klik batean.**

Zeure iritzia ezinbestekoa da geuretzat.  
Sartu [www.nahidudalako.eus](http://www.nahidudalako.eus) webgunean,  
galdetegia bete eta **sari zoragarriak irabazi.\***

\* DBH 3 eta 4ko ikasleentzat.

1

**DJI Mini 3**  
Dronea



2

**Osmo action 4**  
Ekintza Kamara



3

**Kirolaz, kulturaz eta zinemaz**  
gozatzeko opari-txartelak





# Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 HIRUKAren aurrekariak
- 10 Herriak
- 20 Hirudika: Sarakoetxeko erromeria berpiztuz
- 24 Berbetan: Karla Llanos, *Fotografías antiguas de Getxo (1865-1936)* liburua
- 28 Agenda
- 30 Lehen/orain eta Urribitakora
- 31 Kultura
- 32 Akaitze Kamiruaga, Sarakoetxeko erromeriaz
- 33 Mikel Begoña eta Igor Sarralde, *Argia Iraungi zen tokia* komikia
- 34 Iritziak eta Horoskopoa
- 36 Sakoneta Gimnasia Erritmika taldea
- 37 Noa Vega, txirrindularia
- 39 Hirukira Olgetan, umeentzako denborapasak
- 40 Faceguk: Zenbat denbora igarotzen duzu mugikorreraz?
- 41 Mundukatuak
- 42 Atzera begira
- 43 Zozketak



## HIRUKA kooperatiba elkarte

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

**e-posta:** hiruka@hiruka.eus

**Telefonoa:** 944 911 337

**Publizitatea:** Amaia Legarreta

**Erredakzioa:** Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

**Diseinua eta maketazioa:** Artefakto Estudio

**Kudeaketa eta administrazioa:** Ziortza Merino

**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:** Iñigo Astiz, Zelai Nikolas, Ugo Mayor eta Gotzone Butron

**Filmazioa eta Inprimategia:** Gertu Inprimategia

**Lege-gordailua:** BI-2022-2014

**ISSN:** 2386-98-95

**Ale-kopurua:** 5.000

**CC-BY-SA**

HIRUKAK ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

## Erakunde laguntzaileak



**Getxo**  
bizi ezazu



Sopelako Udala



**Plentzia**  
URAREN BIDEAK



Urdulizko Udala



Gortizko Udala



**LEMOIZ**  
DENONA



Barrikako Udala



foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua.



## Kobrak

**IÑIGO ASTIZ** *Berriako kazetaria*



**P**raktikatu egin behar duzu». Polly lagunari kobrak nola egin irakasten ziola kontatzen du Jonek, Miren Amurizak idatzitako *Pleibak* nobelako pasarte batean. Joneren arabera, lagunak benetan nahi baino errazago amaitzen baitu nahi ez duen mutilekin enrollatzen. «Eta eskuak! Adi beti eskuei. Ikusten? Konturatu zarenerako titia sobatzen ari nintzaizun».

2000ko hamarkada inguruko giroa kontatzen du nobelak, bi protagonista nerabe horien arteko harreman libidinal eta,aldi berean, tirabiratsua bidez. Eta liburu osoa hartzen duen tonu jostari eta,aldi berean, gardenaren erakusgarri da kobren entrenamenduaren anekdota. Bi neskek dibertitu egiten direlako elkarrekin mutilen muxuei nola iskin egin ikasten, eta, era berean, pasadizoak argi erakusten duelako zer nolako bortizkeria izan den nagusi maiz segurutzat jotako hamaika esparru eta lagunartetan.

Idatzita dago. Argi irakurtzen da.

Durangoko Azokan, deigarri egin zitzaidan, ordea, Amurizari liburu sinatzeko eskatu ondoren, zenbat eta zenbat mutilek egiten zizkioten antzeko oharrak: «Nire neskalaguna/alaba/amarentzako da». Entrenatu gabe ere, maiz, gizonetzko erraza zaigu errealtate batzuei kobra egiten segitzea.

## Ilusioa eta determinazioa

**ZELAI NIKOLAS EZKURDIA** *Gure Esku*



**Z**orionak, HIRUKA! Zorionak hamar urteotan lanean aritu zareten langile eta komunitateko kide guztioi! Ilusioa, elkarlana eta determinazioa dira herrigintzako proiektuak aurrera eramateko osagaiak, eta HIRUKAn hirurak ederki txertatu dira.

Erraza da ideia berriak sortzea; ederra lagunartean eztabaidatzea. Baina hamar urtez tinko eustea ez da nolanhiko kontua. 2013an, Gure Esku Dago martxan jarri genuenetik badakigu hori zer den, eta elkartasun horretatik aitortza berezia egin nahi diogu HIRUKAri: 2015etik lan txukun eta eredugarria burutu duzue.

Nik ere 2015ean ekin nion HIRUKAekin lankidetzan aritzeari. Gure Esku dinamikaren eta burujabetzaren inguruko gogoetak partekatu ditut, sinetsita nagoelako herritarren ahalduntzea eta elkarlana oztopo guztiak gainditzeko giltza dela. Burujabetza gehiago eta hobe utzi behar diegu hurrengo belaunaldiei, eta jauzi kualitatiboa egin beharrean gaude herri gisa.

Hamar urte igaro diren honetan, herri honek aitortza eta burujabetza egikaritzeko bideak eta tresnak behar ditu oraindik. Ekainaren 7an, Bilbon, Herri Libre Bat aldarrikatzeko Gure Eskuk deitutako mobilizazioan parte hartuko dugu, ilusioz eta determinazioz, gure herriaren etorkizuna gure esku dagoelako. Zatoz zu ere.

## Puntua eta kontrapuntua **Etxegabeak**

# Noren kulpa?



*Norberaren etxea  
bizitzan zutabe:  
logela, egongela  
komun ta sukalde.  
Gure gotorlekuan  
hain seguru gaude!  
Bitartean kalean  
hainbat etxegabe;  
eta bestalde zenbat  
etxe hutsik daude!*

**PERU  
DE PEDRO  
LARREA**  
Gorliz

*Etterik gabe zenbat  
seme ta alaba,  
eta neguan hotza  
izaten da gaba.  
Atsegin dut ipini  
duzun begirada:  
askok lau etxe ditu  
eta, beharbada,  
hein batean hau ere  
beraien kulpa da!*

**IMANOL  
URIA  
ALBIZURI**  
Algorta/Getxo





**Mada Zabala** Lemoizko Herri Eskolako zuzendaria

## «Profesionalki nire irakasteko modua irauli du Lemoizko Herri Eskolak»



**Duela 11 urte hasi zen Mada Zabala Lemoizko Herri Eskolan lanean eta, hasieratik gaur egunera arte, «pozik eta ilusio handiaz» jardun du.**

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

**G**utxi barru jubilatzeke garaia helduko zaio Mada Zabalarari, eta pozarren egingo du Lemoizko Herri Eskolako zuzendari gisa beharrean egon ostean: «Imajina ezazu, 12 ikasturte libururik gabe eta ikasleekin batera haiek aukeratutako proiektua garatzen. Profesionalki nire irakasteko modua irauli du». Hala, ez du aspertzeko astirik izan: eskola berria estreinatu zuen zuzendari gisa hasi zenean, eta, egun, zuzendaritza lanez gain, atezain-lanak egiten ditu eta jantokiko arduraduna da ere. «Eskola txikien sarean egoteak asko laguntzen dit, sortzen diren gatazkak partekatu ahal ditudalako ni bezalako beste zuzendariekin. Hezkuntzan lan egiten dugunok badakigu zein den irakasleok pairatzen dugun estresa;

are gehiago zuzendariok», onartu du. Urte hauetan, Lemoizko Herri Eskola asko aldatu da: eraikina berritu da, egun bazkariak eskolan prestatzen dituzte eta ikasle eta irakasleen kopurua areagotu da. Zehazki, 100 ikasle dituzte. Hala ere, funtsezkoak berdin jarraitzen duela baieztatu du: «Ikasleak erdigunean jartzen ditugu, beti bezala; familien parte-hartzea eta inplikazioa beti izan da garrantzitsua, eta Ikaskomunitatea izaten jarraitzen dugu». Halaber, berrikuntza esanguratsu gisa robotika- eta programazio-klaseak astean behin ematen dituztela azaldu du. Dena dela, oraindino ere gabezia batzuk dituzte eskolan: «Ordezkapen-kudeaketa hobetu behar da eta eskola txiki geratu zaigu. Gainera, irakasleak egonkortzea funtsezkoa da, urtero klaustroaren erdia berria delako», deitoratu du. Nolanahi ere, Zabalak bihotzez espero du bere eskolako ikasleak gustura egotea, azken finean, «pertsona zoriontsuak hezi gura dituztelako».

Beraz, nahiz eta Lemoizko Herri Eskola txikia izan, argi dago ilusio eta konpromiso handiko irakasleek gidatzen dutela hezkuntza-proiektu berritzaile hau. ◀





# ***Bizarra Lepoan eta UK***

Izen bereko Getxoko euskara elkartetik sortu zen *Bizarra Lepoan* aldizkaria duela 30 urte. Proiektu amateurra zen eta Getxora mugatzen zen, baina horrek jarritako hazitik atera ziren *UK* eta *HIRUKA* komunikazio-proiektuak. Bai *Bizarra Lepoan*en bai *UK*n aritu ziren Konrado Mugertza, Jokin Aspuru eta Bittor Egurrola.





# ***Santa Mariñe***

***Santa Mariñe*** 1992tik 1999ra argitaratu zen Sopela eta Urdulizko tokiko aldizkaria izan zen. Bizkaieraz idatzita zegoen eta eskualdeko beste udalerrri batzuetako albisteak ere hartzen zituen. Bertatik ere hainbat eta hainbat euskaltzale pasatu ziren, eta, besteak beste, Urdulizko Euskara Taldeko kide Iñaki Gilisasti izan zen horren sorreran, azken alea argitaratu arte.



**«Gure beharretik aparte ataratzeko gendun gauza bat zan eta ez gendun txakur txikerik berez kobretan. Elortzako eskolan gela txiki bat eukitzen gendun, mahai bat eta ordenadore pare batez, eta hor hainbat ordu sartute ataraten gendun aldizkaria»**

**AKAITZE KAMIRUAGA**  
EUSKAL FILOLOGOA ETA LABAYRU FUNDAZIOKO LANGILEA



**«Gaur egungo gizarte globalizatuan, sare sozialen eta Interneten garaian, gure inguruan gertatzen ari denaren ikuspegia galtzen ari gara; horregatik, tokiko komunikabideak inoiz baino beharrezkoagoak direla uste dut»**

**JOKIN ASPURU**  
UK ALDIZKARIKO ZUZENDARI OHIA  
ETA GETXOPHOTO NAZIOARTEKO IRUDI JAIALDIAREN ZUZENDARIA



**«Irakurzaletasuna ez dekon jendeagaz ezin konektatu ibiltzen ginela gogoratzen dot, batzuk irakurriko eben, baia erderazko egunkariak ziren irakurten zirenak, euskerazkoak ez; dana zan erderaz. Oin aldatu da, beste prestutasun bat dau»**

**IÑAKI GILISASTI**  
IRAKASLE OHIA, EUSKAL FILOLOGOA ETA NON.EUS ATARIKO SORTZAILEA



**«UK aldizkariaren izenak oso ondo laburbiltzen zuen lortu nahi genuena: Uribe Kosta. Eta gaur egun, HIRUKA hartzen dudanean *Bizarra Lepoan* eta *UK* ikusten ditut. Gainera, produktu duina eta landua ikusten dut horretan»**

**BITTOR EGURROLA**  
MUSIKARI ETA IRAKASLE OHIA, ARGAZKIAK TOPATZEKO  
ETA IZENDATZEKO ARDURA IZAN ZUEN *BIZARRA LEPOANEN* ETA *UKN*



**«Argi dago euskarazko tokiko komunikabide baten hutsunea zegoela herrian, eta ekintzailetzatik abiatzea erabaki genuen. Barrutik sortu zen kontu bat izan zen, gauzak horrela ere ateratzen direlako»**

**KONRADO MUGERTZA**  
IRAKASLE ETA ESKOLA KONTSEILUKO KIDE OHIA  
ETA *BIZARRA LEPOANEKO* SORTZAILEETAKO BAT





TESTUA: **ANDER ZARRAGA** • ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

**D**uela 10 urte sortu zen HIRUKA, zehazki, 2015eko urtarrilaren 23an. Hala ere, aurretik, euskarazko beste komunikabide batzuek eman zuten Uribe Kostan gertatzen zenaren berri paperean; eta nora goazen jakiteko nondik gatozen jakitea ezinbestekoa denez, HIRUKA jaio baino lehen, *Santa Mariñe*, *Bizarra Lepoan* eta *UK* aldizkariak sortu zituztenengan jo dugu, eurak izan baitziren eskuartearen duzun aldizkariaren lehen hazia landatu zutenak.

Eskualdeko euskara hutsez argitaratu zen lehen komunikabideetako bat *Santa Mariñe* izan zen. 1992an sortua, Sopela eta Urdulizko euskara taldeek abiatu zuten 1999ra arte iraun zuen proiektua. Aldizkaria aurrera eramateaz arduratu ziren kideetako bi dira Akaitze Kamiruaga eta Iñaki Gilisasti. «Ez geneukazenez ezelango motiborik, ez mediorik, ezta esperientziarik be holako aldizkari bat egiteko, eta zeretik hasi biher izen gendun. Ikosten joan ginen eta dana iten gendun guk, albisteak idatzi, maketatu, propaganda sartu eta banaketa be», gogoratu du Gilisastik. Testuak bizkaiera hutsean idazten zituzten, nahiz eta Kamiruagak onartu beraiek ez zutela bizkaiera araturik erabiltzen: «Ahaleginduten ginen Urdulizko euskera erabiltzen».

1995ean, Bizarra Lepoan Euskara Elkar-teagaz batera, horren izen bera zuen aldizkaria argitaratzeari ekin zioten Getxon; besteak beste, Konrado Mugertzak eta Jokin Aspuruk izan zuten horren ardura. «Aixerrota institutuan *Kanterepe* aldizkaria genuen, beraz, bagenuen euskalgintzarako zaletasun hori. Horrez gain, Konradok argazkiak errebelatzeko laborategi bat ere antolatu zuen, frikiek errekreoetan erabiltzen genuena; hortik atera zen ideia», azaldu du Aspuruk. Era berean, herrian euskarazko komunikabiderik ez zegoenez, horrelako baten beharra ere bazegoela azpimarratu du Mugertzak: «Barruan genuen ezinegon horri irteera emateko modua zen, gauzak horrela ere ateratzen direlako».

**HERRI-EKIMENEN PROIEKTUAK.** Proiektu amateurak ziren, eta euskaltzaletasunetik eta garai hartan gauzak egiteko zegoen grina horretatik sortu ziren. Hala ere, apalatasunez eta gutxika-gutxika, urteakaz profesionalizaziorako bidea ere egin zuten. «Aldizkariaren gain,

**1992an**  
*Santa Mariñe* aldizkaria sortu zuten Sopela eta Urdulizko taldeek.

**1995**  
urtean argitaratu zen *Bizarra Lepoan* aldizkariaren lehen alea.

**1999an**  
*Santa Mariñe* desagertu zen, eta *Bizarra Lepoan* aldizkaria *UK* bilakatu zen.

**2014ra**  
arte argitaratu zen *UK* aldizkaria, eta 2015ean HIRUKA bezala birsortu zen proiektua.

## Jarraikortasuna

**HIRUKA** aurreko proiektuen emaitza den heinean, hurbiletik ikusiz gero, oraindino mantentzen diren hainbat kontu igarri daitezke: diseinuko hainbat ñabardura, zenbait atal, eskualde izaera lantzeko ardura... Aipatzekoa da baita irudien trataera: 'Bizarra Lepoan' en eta 'UK' n aritu zirenek argazkilaritzarekiko zaletasun handia zeukaten eta garrantzia asko ematen zieten irudiei, eta horrek ere gaur egun arte iraun du. Esan barik doa lantalde haietako kide eta kolaboratzaile askok ere proiektuagaz inplikatur jarraitu dutela, eta horrek ere jarraikortasuna eman diola komunikabideari.

gure lana genuen, baina bakoitzak bere atal-txoa zeukan eta denon artean egiten genuen dena: idatzi, maketatu, banaketa...», gogoratu du Aspuruk. «Hasieran, garai horretarako oso potentea zen ordenagailu bat eta laser inprimagailu bat lortu genituen, BBK-ko presidente izandako batek emandako diru-laguntza bati esker», aipatu du Mugertzak. Gilisastik ere gogoan du hainbat buruhauste izaten zituztela, batik bat zer sartu eta zer ez erabakitze, gogo asko izan arren ez baitziren profesionalak: «Ordu erdiko lana egiteko hiru ordu behar genduzen batzutan; Jabi Zabala sartu zanen arnasa hartu ahal izan gendun, bera kazetaria zalako, eta lana apur bat antolatu ebalako».

Herri-ekimeneko proiektuak izanik, hainbat eta hainbat herritarrek parte hartu zuten horietan; batzuk oraindino azaltzen dira noizbehinka HIRUKAko orrialdeetan. Orduan aritu ziren beste askoren artean, Bittor Egurrola izan zen *Bizarra Lepoan* en eta *UK* n aritu zen horietako bat, eta berak aitortu bezala, «izen denak gogoratzea ezinezkoa da».

**PROFESIONALIZAZIOA.** Hedabide horien profesionalizaziorako benetako jauzi kualitatiboa 1999an eman zen, *Santa Mariñe* eta *Bizarra Lepoan* desagertu eta *UK* aldizkaria sortu zen urtean, hain zuzen ere. Gilisastiren eta Kamiruagaren arabera, garai hartan bilerak egin zituzten *Bizarra Lepoan* enko kideakaz, errelebo falta zutela-eta, *Santa Mariñe* desagertzeaz zegoelako: «Ito egin giñen: familiak izaten hasi giñen eta asti barik proiektuaren akabera etorri zan, eta horregaz batera euskara elkartearen ekintzak bebai amaitu ziren».

Aspuruk kontatu du *UK* sortu zen garaian, «indarrak batzeko gogo» zeukatela eta eskualdeko beste udalerrietara zabaltzeko helburua ere izan zutela, «ez zuelako zentzurik udalerririk bakoitzean aldizkari txiki bat izateak; hobeagoa zen eskualderako zerbait sortzea, eta gogoeta horretatik azaldu zen *UK*. Gerora, hainbeste zabalduko zen *UK* marka guk sortu genuen, kar-kar». Hala, Uribe Kostako beste udalerrietako elkarteak gehigarriak egiten hasi ziren, aldizkarian txertatzeko, eta lantaldea espezializatzen joan zen; are, erredakziorako zein administraziorako profil zehatzak sortu zituzten, «aldizkaria ere potoloagoa zen eta herri eta gai bakoitzari atal bat ematen genion», azaldu du egungo Getxophoto jaialdiko zuzendariak.

2015ean, *UK* aldizkaria eta *Ukberri.net* agerkari digitalak bat egin zuten, indarrak batuz, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-talde berria eta integrala sortzeko, zeinak webguneko agerkaria eta papera uztartuko zituen; eta batura horretatik sortu zen HIRUKA. ◀





© GETXOKO UDALA

# «Erreferentziatzko leku bat izan behar du Bentak»

**B**entaraNoa elkarteak urte bi daramatza eraikinaren lagapena jaso zuenetik, baina prozesua askoz luzeagoa izan da, 2016an Udalak parte-hartze fasea martxan jarri zuenetik, hain zuzen. Lagapenaren helburua hasieratik benta historikoaren kudeaketa izan da. Azken urteotan, elkarteak gunea dinamizatu du, 120 jarduerara baino gehiago antolatuz bost ardatz nagusiren baitan: artea eta kulturaren zabalpena, herriko sare eta elkarten topagunea, Andra Mari auzoaren garapena, auzo kohesioa eta gaurkotasuneko gaien inguruko eztabaidak. «Esperientzia aberasgarria izan da, baina aldi berean nekagarria».

**Zelako harrera izan dute ekimen horiek auzoan?** Orokorrean harrera ona izan dutelakoan gaude. Egia da ere akaso beste espektatiba batzuk zeudela eraikin horrek historikoki izan duen taberna izatearekin lotuta. Egiarior, gustatuko litzaiguke eguneko ordu batzuetan irekita mantentzea topaleku funtzioa bete dezan, baina asanbladako kideok ez daukagu gaitasunik antolatzen ditugun jardueren haratago lan hori ere gure gain hartzeko.

**Auzoko bizilagunek nola parte hartzen dute proposatutako ekimenetan?** Parte hartzeko modu asko daude, eta esan gabe doa denak di-rela ongi etorriak. Auzoko askok jardueretara gerturatuta parte hartzen dute, kontsumitzailer gisa, baina beste askok ideia pila bat dituzte Bentan egin daitezkeen gauzen inguruan eta bileretara ere gerturatzen dira. Bi astean behin batzen gara, eta norbaitek parte hartzeko interesa badu horra bideratzen dugu. Inguruko eragile eta elkartei dagokionez, dagoeneko

**Aurreikuspenak**  
**«Egindako lanarekin aurrera jarraitu nahi dugu, baina beste jardueramota batzuetan ere sakontzea gustatuko litzaiguke, komunitatea eraiki eta auzokoekin partekatze aukera emango digutenak»**

**Erronkak**  
**«Beste erronketako bat auzoaren aktibazioa da, eta uste dugu auzoan dauden hutsuneen bitartez ere eman daitekeela aktibazio hori; esaterako, ume eta gazteentzako eskaintza antolatuko duen guraso-talde bat martxan jarrita»**

batzuek Bentan egiten dituzte euren bilera eta topaketak, baina lan handia dugu aurretik, izan ere, eragile eta elkarreentzako erreferentziatzko leku bat izan behar du Bentak.

**Zer izan da zailena kudeaketan edo antolaketan? Eta, alderantziz, zer ikasi duzue?** Tira, zailtasunak beti dira ugariak horrelako proiektu batean. Ulertu behar da boluntario-lana dagoela kultur elkarte gehienetan atzean eta gehiegizko lan burokratikoak oztopo bat izan daitezke horien funtzionamenduan. Badakigu Udalak berme batzuk ziurtatu behar dituela diru publikoaz edo ondareaz ari garenean, baina uste dugu denon helburua dela auzoa aberastea eta kohesioa indartzea, eta horretan jarri behar ditugula indarrak.

Horrez gain zabalpenean eta propaganda lanetan ere arazo handiak ditugu. Ez da erreza jendearen arreta gureganatzea, are gehiago gauden tokian kokatuta. Gainera, denontzako agenda erakargarria antolatzea oso zaila izan daiteke baldin eta adin, genero eta jatorri aldetik hutsune argiak badaude elkartean.

**Zelako harremana izan duzue Udalarekiko?** Harremana ona da, uste dugu bi aldeek dugula interesa horretan. Espazioaren kudeaketa osoa elkartearen esku dago eta, beraz, Udalak ez du oztoporik ipintzen gure egitarau eta agendan. Lagapenaren jarraipena egiteko bilerak izaten ditugu aldiro, eta horietan diru-kontuen eta ekimenen memorien txostenak helarazten dizkiogu Udalari. Bentan antolatzen den guztia elkartearen esku dago eta tokiko edozein kultur elkartek eska dezakeen diru-laguntzaz haratago ez dugu beste finantzaziorik jasotzen Getxoko Udaletik. ◀



Leioa 2024/2027 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa

# Leioan ia hiru milioi euro bideratuko dituzte diru-laguntzetarako

**U**dalak 2025erako ia hiru milioi euro bideratuko ditu 2024/2027 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren bidez. Eguneraketa urtarrileko osoko bilkuran onartu zuten EAJren eta PSEren babesagaz; oposizioko alderdiak abstenitu egin ziren.

Honela banatuko dituzte partidak: 1,2 milioi euro kolektibo kalteberei eta adinekoei laguntzeko;

756.000 euro kirola, kultura eta gazteria sustatzeko; euskara, hezkuntza eta ekonomia sustatzeko 400.000 euro; 336.000 euro lankidetzeta, immigrazioa eta berdintasun arloetarako; eta 130.000 euro komunitateentzako irisgarritasun- eta birgaitze-laguntzetarako.

Udalak nabarmendu du planak ongizatea bermatu eta garapena sustatzea duela helburu. ◀

Getxo Gaztelekuaren aldaketa

## GauEgun gaztelekua, Kantxa Kirol Modarenaren lokalera

**A**lgortako Torrene kalean dagoen udal-merkatuaren administrazio-emakidaren kontratua aldatzea onartu du Getxoko Udalak, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoakaz eta oposizioaren abstentzioagaz. Aldaketa horregaz, Kantxa Kirol Modarena zegoen lokalera lekualdatuko dute Algotako GauEgun gaztelekua. Gobernu-taldearen arabera, gune berriak udalerriko gazteen beharrei egokitutako instalazio hobeak eskainiko ditu. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek gardentasun falta salatzen dute, eta PPK merkataritza-jarduera mantentzearen alde egin du. ◀

Getxo Martxoaren 15era arte

## Oporrak Bakean egitasmorako izen-ematea zabaldu dute

**O**porrak Bakean ekimenerako izen-ematea ireki dute Getxon, martxoaren 15era arte. Atfal elkarteak, Udalgaz elkarlanean, sustatutako programak 2015ean jaiotako saharar umeei udan Getxon egoteko aukera ematen die. Helburuen artean daude haien osasun-azterketak egitea, klima gogorretik babestea eta kultur trukaketa sustatzea. Familia hartzaileek udako jardueretan parte hartu ahal izango dute, eta Udalak diru-laguntza emango du gastu batzuetarako. Informazio gehiago: 658 751 359 eta atfalgetxo@gmail.com. ◀



### Bidegorria, Artatza ikastetxeraino

Leioako bidegorrien sareak ia 16 kilometro izango ditu suhiltzaileen parketik Artatza ikastetxera doan 250 metroko tartea bukatzen dutenean. Eskuhartze hori otsailean egingo dute eta lanek aste biko iraupena eta 77.000 euroko aurrekontua izango dute. Hainbat hezkuntza-zentrotuen gune hori hiriguneagaz elkartzea eta garraio jasangarria bultzatzea da lanon helburua.

SAN NIKOLAS IKASTOLA

Erdi gunean ZU

MARIKULA ZAITEZ

EMAN IZENA sanikolas.eus



**Getxo eta Leioa** Itsasadarraren azpiko tunela

# Manifestazioa egingo dute Bilbon, subflubialaren aurka

**Subflubiala EZ! plataformak mobilizatorako deia egin du otsailaren 8rako, itsasadarraren azpiko tunelaren proiektua gaitzesteko.**

**B**izkaiko Foru Aldundia sustatzen ari den itsasadarraren azpiko tunelaren proiektua gaitzesteko manifestazio jendetsua egingo dute hilaren 8an, 17:00etan, Bilboko Arriaga antzokitik abiatuta. Azpiegitura horren aurkako deialdiak hainbat arlotako 50 kolektibo baino gehiagoren babesa jaso dutela adierazi dute antolatzaileek; tartean, hainbat auzo- eta guraso-elkarte, gaztetxe, talde feminista edo ekologista.

Deialdiagaz batera, salatu dute proiektuak ez diela «herritarren benetako beharrei erantzuten», eta ingurunean, gizartean eta ekonomian inpaktu «larriak» eragingo dituela. Halaber, ohartarazi dute proiektua ez datorrela bat Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasunaren mugikortasun iraunkorren helburuakaz. Era berean, Bilboko metropolian garraioaren plangintza integrala falta dela ere kritikatu dute.

**ARRAZOIAK.** Hauek dira plataformako ki-deek proiektuaren aurka egiteko zerrendatu dituzten beste argudio batzuk: batetik, diote proiektuak ez duela lagunduko berotegi-efek-



50 kolektibo baino gehiagok babestu dute plataformaren deialdia. HODEI TORRES

**Eragin larriak**  
«Artatzako parkeak, Aldundiak berak inguruko biztanleentzat lehen mailako birika berdetzat hartzen duenak, eragin larria izango du, eta inguruko ikastetxeetan eta biztanleen bizi-kalitatean ere bai»

tuko gasen emisioak murrizten, «mota horretako azpiegiturek auto partikularren erabilera sustatzen duen eskari induzitua» sortzen baitute; bestetik, azpiegituraren xahuketa ekonomikoaren kezka ere azaldu dute, obrak hasi aurretik horien kostua % 10 handitu baita, 450 milioi eurotik 500 milioira pasatuz, eta hasierako aurrekontua bikoiztu zuen Supersur autobidearen adibidea ere aipatu dute; azkenik, tunela eraikitzerakoan eta hori bukatuta dagoenean sortuko den trafikoak inguruetako bizilagunei eragingo dien kaltea ere azpimarratu dute. «Zarata, kutsadura eta bibrazioak jasango dituzte obrek irauten duten bitartean, eta ibaipekoa martxan jarri ondoren, kutsadura etengabe areagotuko da». ◀

**AINGARA**  
BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

Ibaiondo, 13 48930 Erromo · GETXO

944 038 953 • [www.bordadosaingara.com](http://www.bordadosaingara.com)

RPS 65/17

**ARANTZA ETXEBARRIA**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra  
Ortodontzia

Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696



Erudio Zainduz 2025 programa

# Zaintzetarako laguntza-sarea bultzatuko dute

**E**rudioko Udalak Zainduz 2025 aurkeztu du, mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei laguntza integrala emateko arreta-zerbitzua. Tailerren, hitzaldien eta aholkularitzaren bidez, zaintzako eta autozaintzako eza-gutzak eta trebetasunak indartzea da programaren helburua. Erudion erroldatutako zaintzaile ez-profesionalei zuzenduta dago eta honako hauek biltzen ditu: banakako eta tal-

deko laguntza psikologikoa, mendeko pertsonen mobilizazioari buruzko prestakuntza, denboraren kudeaketa eta autozaintza, bai eta zahartze aktiboari eta zaintzaren erantzunkidetasunari buruzko sentsibilizazio-jardunaldiak ere. Saioak otsailetik ekainera eta irailetik abendura egingo dituzte. Informazio gehiago jaso daiteke Udaleko Gizarte Zerbitzuen bulegoetan: Altzaga, 944 890 233; eta Astrabudua, 944 069 919. ◀

Erudio Lana

## San Jose egoitzan «hutsune larriak» salatu ditu EH Bilduk

**K**oalizioak ohartarazi duenez, egoitza kudeatzen duen Gizatzenek zerbitzuaren ordainketa osoa jasotzen duen bitartean, langileek –gehienak emakumeak– nomenin atzerapenak, 600 eurorainoko soldata-diskriminazioa, baje ordezkapen eza eta lan-abusuak jasaten dituzte. Hori dela eta, Erudioko Udalarari ardura hartzeko eta zerbitzua zuzenean kudeatzeko eskaera egin diote, «gardentasuna, lan-duintasuna eta egotzaren arreta egokia bermatzeko». ◀

Erudio Martxoko uholdeak

## Iazko uholdeetako kaltetuek mobilizazioak iragarri dituzte

**A**ltzagako uholde larrietatik ia urtebetera, kaltetuek mobilizazioak iragarri dituzte, eta Aldundiaren eta Udalaren konponbide faltak «utzi-keria- eta desinformazio-sentsazioa» areagotzen dutela salatu dute. Diotenez, Udalak jakinarazi die Aldundiari presioa egiten jarraitzen diola babes-neurriak hartzeko, baina, kaltetuen arabera, ez dute neurri eraginkorrik hartu, eta 2024ko uholdeen ondoren, zakuak baino ez daude oraindino.

Halaber, Klima Aldaketaren 7/2021 Legea bete dezatela eta URaren Arrisku Planari aurkeztutako alegazioei erantzun diezaiela ere eskatu diete arduradunei. ◀



### Eraisketa-lanak martxan daude

Altzagako Cables y Alambres lantegia laster desagertuko da. Daborduko pabiloi gehienak kendu dituzte, eta errepidearen ondokoa bakarrik geratzen da zutik. 40.000 metro koadroko lursail horretako kutsadura garbitzen dutenean, 350 etxebizitza baino gehiago eraiki gura dituzte bertan.



**Urteko 365 egunetan gaude zabalik**

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



GIZONEZKO MODA



ALGORTAKO ETORRIDEA 59



**Berango** Kirolaren Gala**Udalerriko kirolariei aitortza egin die publikoki Udalak**

**B**erangok Kirolaren lehen Gala ospatu zuen urtarrilaren 30ean, herriko kirol klubien lana aitortzeko. Itziar Aguinagalde alkateak zortzi sari banatu zituen hurrengo kirolari eta taldeen artean: Alejandro del Arco *Jato* (Karabigane FT), Zutik Esku Pilota Taldeko haurrak, Zuriñe del Bosque (Hontzuriak KK), Sabin Rekalde (Walking Football), Josetxu Muñoyerro (Txirrindulari Elkartea), Joaquin Pozo (Berango FT), Berango Eskubaloia eta Ian Gonzalez (Atletismo Taldea). Muñoyerroren hitzetan, «garrantzitsuena herriko taldean egotea da». ◀

**Berango** 150.000 euro**Herritarrek bozkatutako lau proiektu gauzatu dituzte Berangoko Udalak**

**B**erangoko Udalak auzokideek proposatutako 400 ideietatik lau hautatu ditu eta horiek gauzatzeko 150.000 euro bideratuko ditu datozen hilabeteetan. Parte-hartze prozesu hori joan den irailean hasi zen, eta herritarrek haien iritziak online eta aurrez aurre helarazteko aukera izan zuten. Hautatutako proiektuak hurrengoak dira: LED bidez argiztatutako oinezkoen pasabideak (36.000 euro), haur-parkea eta aisialdi gunea Etxebarri aldean (46.000 euro), txakurren aisialdirako gunea Santa Ana auzoan (35.000 euro) eta muralismo lehiaketa bat zarata-panelak margotzeko (40.000 euro). ◀

**Sopela** Ibilgailuen Azterketa Teknikoa**Sopelako IAT estazioa martxan dago teknologia berrienagaz**

**Sopelako IAT estazio berria astelehenetik barikura dago zabalik, 07:30etik 15:00etara. Hitzordua 946 149 021 zenbakira deituta hartu daiteke.**



Olabide kaleko 10 zenbakian kokatuta dago. © SOPELAKO UDALA

**U**rtarrilaren 27an ireki zuten Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren (IAT) estazio berria. Olabide kaleko 10 zenbakian dago kokatua, Urdulizko ospitalerako irteeran dagoen industrialdean. Guruzne Carrasson Sopelako alkateak «positibotzat» jo du instalazioaren irekiera: «Sopelan ez ezik, eskualde mailan ere aldarrikatu beharreko lorpena da. Irekiera honek gertutasuna eskainiko dio pertsona askori, eta Eusko Jaur-laritzak sektorearen urbanizazioa bermatzeko duen elkarlanerako ja-

rrerarekin, Sopelatik Urdulizko ospitalera oinezkoak igarotzea errazteko pausoak emango dira, eta hori guztiz beharrezkoa da». Estazioak ikuskapenentarako teknologiarik berriena eta digitalizazio-mailarik handienak ditu, eta, hala, bizkortasun eta segurtasun handiagoa lortuko du ikuskapen-prozesuetan. Hiru ikuskapen-lerro ditu estazio berriak: bi ibilgailu arinenak, unibertsal bat eta motozikletak ikuskatzeko box egokitu bat. Hitzordua 946 149 021 zenbakira deituta hartu daiteke. ◀

**GU**  
**ander**  
**deuna**  
IKASTOLA

anderdeuna.eus

1-18 urte bitarteko  
hezkuntza eskaintza

**Matrikulatu gurean**

Matrikulazio epea otsailaren 3tik 14ra | [info@anderdeuna.eus](mailto:info@anderdeuna.eus) | 94 676 02 66



**Urduliz** Ikusmenari lotutako gaitzak

# Tratamendu intrabitreaoa kontsultan txertatu dute

**Operazio-gela bertan izanda lortuko dute pazienteak gutxiago mugiaraztea, egun berean berrikuspenera eta tratamendua jaso ahal izango dutelako ospitalean.**

Urdulizko ospitalean oftalmologiako operazio-gela berri bat jarri dute, kontsultan zuzenean tratamendu intrabitreaoa txertatzea ahalbidetuko duena. Gotzone Barbarias OSI Uribeko oftalmologiako buruaren arabera, aurrerapauso handia izan da, horri esker pazienteak kontsultara berrikuspenera egitera joaten direnean zuzenean tratamendua jaso dezaketelako, «prozesu osoa errazagoa eta azkarragoa bilakatuz». Begiko-makulari lotutako gaitzei aurre egiteko tratamendu intrabitreaoa aplikatzen diete: begi barruan aplikatzen den medikazio bat da, eta, besteak beste, degenerazio makularra duen edadeko jendeak jasotzen du, itsu bilakatzeko arriskua saihesteko. Horrez gain, zainetako tronbosia duen eta diabetikoa den jendeari ere aplikatzen diote. Degenerazio makularra duten edadeko pertsonak familiakaz batera joan ohi dira ospitalera, mendekotasuna dutelako eta euren ikusmena urria delako. Horregatik, operazio-gela berri honen bidez, tratamendua jasotze-



Urdulizko ospitalea. HODEI TORRES

ko prozesua laburtzea da helburua. Medikazioa sarritan jarri behar da: hasieran, hilabetean behin eta, gero, ahalegintzen dira tarte horiek luzatzen, betiere gaixotasunak ondo eboluzionatzen badu. Duela urte bi, begi barruan medikazioaren efektua luzeagoa egin ohi duten molekula berriak aurkitu zituzten, eta horiek aplikatzen ari dira egun. Horregaz, pazienteak eta euren familiak gutxiago joango dira ospitalera, eta euren bizitza kalitatea hobea izaten lagundu gura dute. ◀

**Urduliz** Hirigintza plan berria

# HAPOren prozesua martxan jarri dute herritarrakaz batera

Urdulizko HAPO (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) izango da udalerrri osoaren antolamendu integralerako tresna nagusia: udalerrri osoko lurzorua eta eraikinen erabilerak antolatuko ditu, publikoak eta pribatuak. Lehenengo informazio-hitzaldia eta partaidetza-tailerra otsailaren 5ean izan zen, herritarrakaz batera egin zutena. Gainera, otsailaren 28ra arte modu digitalean ere parte hartu ahal izango dute udalerrriko bizilagunek hurrengo webgunean: [www.parتهartu-urdulizkohapo.eus](http://www.parتهartu-urdulizkohapo.eus).

Urdulizek gaur egun ez du HAPOrik, 2000. urteko arau subsidiarioa baizik. «Urdulizen beharrak aldatu egin dira 25 urte hauetan eta, horregatik, garrantzitsua da plan orokor berri hau idaztea, udalerrriak gaur egungo beharretara egokitutako hirigintza-plan bat izan dezan, adibidez, etxebizitzari, eremu publikoari, mugikortasunari eta beste hainbat konturi dagokienez», adierazi du Udalak. Hala, azaldu du hirigintza-plan orokorra egitea, behin betiko onartu bitartean, prozesu luzea izango dela, hainbat urte eta fase dituen. «Herritarren parte-hartzea garrantzitsua da plana idazten den bitartean, eta bereziki garrantzitsua da hasieran, informazio-fasean, aurrerapenean eta hasierako onarpenerako». ◀



**MATRIKULA ZABALIK**  
OTSAILAK 3-14

☎ 94 464 23 64



**BETIKO**  
IKASTOLA  
[www.betikoikastola.eus](http://www.betikoikastola.eus)



**Uribe Kosta** Mugikortasuna

# Aldaketak eta eskakizunak garraio publikoan

**Bizkaiko garraio publikoan deskontuak otsailaren 20ra arte mantenduko dira momentuz, Espainiako Gobernuak erabakitzen duenaren zain.**

**E**usko Jauriaritzako Mugikortasun Jasangarriaren Sailak bultzatuta, dardorduko doakoa da 12 urtetik beherakoentzako garraio publikoa. Neurri horretaz baliatu ahal izateko, 12 urtera arteko adingabeek txartel pertsonalizatu bat eduki beharko dute. Txartela tutore arduradunak eskatu eta eskuratu ahal izango du, betiere doakotasun horren onuraduna izango denaren argazkia eta NAN edota familia-liburua aurkezten baditu Bizkaiko garraio publikoaren Bezeroarentzako Arreta Bulego integratuetan.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak garraio publikoan deskontuak otsailaren 20ra arte mantenduko dituela iragarri du, Espainiako Kongresuak hobari horiek partzialki finantzatzen zituen dekretuari uko egin arren. Leixuri Arrizabalaga Bizkaiko Foru Aldundiko bozeramaileak «lasaitasun mezua» igorri gura izan du: «Otsailaren 20ra arte baitugu egoera hori nola konpontzen den aztertzeke eta behin betiko neurriak hartzeke». Era berean, zehaztu du deskontu horiek titulu guztietan mantenduko dituztela, noizbehinkako txartelekin izan ezik. Bizkaian, garraio publikoaren % 50eko deskontua honela finantzatzen da: % 30 Espainiako Gobernuak, % 10 Eusko Jauriaritza eta %10 Bizkaiko Foru Aldundia. Hala ere, Estatuko dekretua ez baliokotzeak airean utzi dezake Espainiako Gobernuak emandako %30eko finantzaketa, eta horrek eragina izan dezake Bizkaiko Garraio Partzuergoak araututako tituluetan.

**HERRITARREN ESKAKIZUNAK.** Jauzi Ekosoziala taldeak Uribe Kostako metro frekuentzia handitzearen beharra aldarrikatu zuen joan den urtarrilaren 24an, Sopolako udaletxearen aurrean. Nabarmendu dute egun eskualdean dagoen metroaren eta autobusen zerbitzua ez dela nahikoa «eskualdea bera eta ingurukoekin behar bezala kohesionatzeko». Euren



12 urte arteko adingabeentzako bidaien doakotasuna indarrean dago. HODEI TORRES

**Jauzi Ekosoziala taldeak nabarmendu du egun Uribe Kostan dagoen metroaren eta autobusen zerbitzua ez dela nahikoa «eskualdea bera eta ingurukoekin behar bezala kohesionatzeko»**

eskaera argia da: beharrezkotzat jotzen dute metroaren maiztasuna gutxitzea, eta 13 minutuan behinekoa izatea, zehazki Sopela, Urduliz eta Plentzian. Taldeak deitoratu duenez, nahiz eta eskualdeko biztanleria azken urteotan nabarmenki handitu den, metro zerbitzuak berdin jarraitzen du, eta biztanleen beharrak bermatu gabe gelditzen dira. «Horrek auto pribatuaren erabilera areagotzen du. Baina, aldi berean, autoa ez duten herritarren aukerak murrizten ditu, lanera, ikastera edo osasun zerbitzuetara berandu heltzea eraginez». Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jauriaritzak, Metro Bilbaoren finantziarioaren ardura duten erakundeak, konpromiso handiagoa hartu beharko luketela uste dute talde horretako kideek. «Metro Bilbaotik erantzuten dute teknikoki ez dela bideragarria, inbertsioak beharrezkoak direla aurrera eramateko. Baina ikusi izan dugu zelan nahi izan dutenean inbertsioak egin dituztela, adibidez, Ibarbengoako geltoki eta aparkaleku fantasma eraikitzeke edo Uribe Kostan errepi-de gehiago bultzatzeko», deitoratu dute. ◀



Uribe Kosta Inauteriak

# Otsailaren 28tik martxoaren 9ra, mozorroz blai

**Eskualdeko udalerrri gehienetan otsailaren 28tik martxoaren 3ra bitartean ospatuko dituzte inauteriak; Algortan, aldiz, martxoaren 7-9ko aste-akabuan.**

**H**aur zein nagusi, ametsetako pertsonaia bilakatzeko aukera eskaintzen duten jaiak dira inauteriak. Askorentzat urteko zitarik garrantzitsuenak da, gogoz prestatutako mozorroa jantzi eta lagun zein familiakaz festaz gozatzekoa. Uribe Kostan ez da disfrutatzen aukerarik faltako, aste-akabu bitan aratusteetan murgiltzeko aukera egongo baita gurean. Lehenengo hitzorduak hilaren 28an izango dira, hala nola Erandion (otsailak 28-martxoak 2) eta Sopelan (otsailak 28-martxoak 3). Lehenengoan, Astrabuduko Trabudu dantza-taldeak Dantzaxori ikuskizuna taularatuko du beste behin, Mendiguren plazan, 20:00etatik aurrera. Hala ere, aurretik eta ondoren ere gozatekorik egongo da bertan zein ondoko auzoetan. Sopelan, marrazki bizidunetz beteko dira kaleak, eta bariku horretan taularatuko duten komedia batez emango diete hasiera jaiak. Hala ere, jai-egun handia zapatuan, martxoaren 1ean, izango da, bai Sopelan bai gainontzeko herri eta auzoetan ere, hala nola Plentzian, Gorlizan, Lemoizen (martxoak 1-3), Urdulizen, Berangon eta Itzubaltzeta/Romon. Horieta guztietan askotariko jarduerak egongo dira gozagai, hala nola herri-bazkariak, erromeriak, desfileak eta lehiaketak. Gainera, euskal inauteri tradizionalak eza-gutzeko aukera egongo da ere, besteak beste, Erandiogoikoan. Egitarau guztiak [hiruka.eus](http://hiruka.eus) webgunean topatuko dituzue, ez galdu!

**BIGARREN AUKERA.** Lehenengo aste-akabuan festaz gozaterik ez dutenek Algortara hurbiltzeko aukera izango dute. Izan ere, martxoaren 7tik 9ra ospatuko dituzte jaiok bertan. Egun handia zapatuan, martxoan 8an izango da, eta jai-batzordeak jakinarazi duenez, ekitaldi guztiak Mugimendu Feministak M8rako deitutako manifestazioaren ondoren hasiko dira, 12:30ak aldera. ◀





**Uribe Kosta** Jazarpen matxisten salaketa publikoak

# Eraso matxisten salaketak,

**Gero eta emakume gehiago ausartzen dira bizitako eraso matxistak salatzeraz. 2024ko azaroan sortutako @denuncias\_euskalherria Instagram kontua horietako askoren babesleku bilakatu da; profilak 500 salaketa matxista baino gehiago argitaratu ditu daborduko.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

**I**az, 2024an, gutxienez 6 erailketa matxista izan ziren Euskal Herrian. Horiekaz batera, hainbat eraso matxista ere jazo ziren —eta jazotzen dira ia egunero—, asko eta asko publikoki salatu bakoak. Erasoen psikologiko zein fisikoak; guztiak gizonen kontra emakumeen kontra egindakoak.

Seinalamendu eta salaketa ezari lotutako arrazoiak askotarikoak dira: ez sinistearen beldurra, inguruko botere-harremanak, erasotzailearen eraso berri bat jasotzearen arriskua edo biolentziaren normalizazioa, besteak beste. Alabaina, testuinguru horretan, emakumeek babesleku berriak eraiki dituzte erasoen isiltasun patriarkal konplizearen aurrean. Hala baieztatu dute Algortako Haziak, Sopolako Sugarri eta Plentziako Sorginen Alabak talde feministek: «Erasoen salaketa ugaritu egin da, horretarako testuinguru bat sortu delako, kasu entzutetsuak izan dira medioetan eta, horrek, beste hainbat gauzaren artean, erakutsi du indarkeria matxista egiturazkoa dela eta, beraz, toki guztietan dagoela».

Egunotan, unibertso digitalean argitaratutako salaketa publikoek «indarkeriaren dimentsioaz» ohartzen dutela uste dute: «Indarkeria, beti, leku guztietan, dagoela erakusten digu. Emakumeok eta disidenteok ondo dakigu hori, baina pauso bat gehiago izan da».

Horien artean, oihartzuna sortu du 2024ko azaroan sortu zen @denuncias\_euskalherria izeneko Instagram profilak. Horren helburua kontuko lehenengotariko argitalpen batek azaltzen du: «Indarkeria matxistaren testigantza jasotzea eta zabaltzea, anonimotasunetik, gure artean babesteko, memoria kolektiboa sortzeko, eta beldurra eta lotsa bandoz aldatzeko».

2018an, Cristina Fallaras kazetaria sexu indarkeriaren biktimen testigantza jasotzen hasi zen bere Instagram profilean, eta @denuncias\_euskalherria-k bere eredu jarraitu du, beste askok bezala: Denuncias Granada, Barcelona, Asturias, etab.

Bertoko kontuan, euren azaletan bizitako biolentzia matxistak salatze tokia aurkitu dute Euskal Herriko ehunka emakumeek. Profi-



**«Garrantzitsua da erasoren bat jasan duten pertsonen, bereziki sistema heteropatriarkalak eta sistema horrekin intersektionatzen duten beste botere-ardatz batzuek zapaldutakoek, egiturazko errealitate bat ikusarazteko toki bat izatea»**

ITZUBALTZETA/ROMOKO TALDE FEMINISTA

**«Indarkeria, beti, leku guztietan, dagoela erakusten digu. Emakumeok eta disidenteok ondo dakigu hori, baina pauso bat gehiago izan da»**

HAZIAK, SUGARRI ETA SORGINEN ALABAK TALDE FEMINISTAK

la bera sei emakumeek kudeatzen dute, horiek ere anonimoak, eta sarean azaldu dutenez, arlo ezberdinetan aritzen diren arren, guztiek bizi izan dute indarkeria matxista euren gorputzetan.

Denbora honetan, Euskal Herri osoko emakumeek bizitako 500 salaketa eta bizipen baino gehiago argitaratu ditu profilak. Horien artean, Uribe Kostako emakumeek deskribatutako ere argitaratu dituzte; besteak beste, Itzubaltzeta/Romoko, Algortako, Sopolako, Leioako eta Plentziako kasuak.

Itzubaltzeta/Romoko talde feministak Instagram kontuaren balio soziala nabarmendu du: «Garrantzitsua da kalte edo erasoren bat jasan duten pertsonen, bereziki sistema heteropatriarkalak eta sistema horrekin intersektionatzen duten beste botere-ardatz batzuek zapaldutakoek, egiturazko errealitate bat ikusarazteko toki bat izatea, kasu isolatuak ez direla ikus dadin, haien ahotsa entzun dadin».

Aitzitik, zalantzan jarri dute noraino hel daitekeen @denuncias\_euskalherria kontuaren eragina horrelako salaketei erantzun bat emateko. «Indarkeria indibidualizatu egiten dute, kasu indibidualen bozgorailu bihurtzen direlako egiturazko azterketarik egin gabe. Autodefentsa feministaren funtsezko mekanismo bat falta da, kolektibizazioa, komunita-



# gero eta ozenago



Zigor-eredua birpentsatu eta eztabaidatu gura du Itzubaltzeta/Romoko talde feministak. HO DEI TORRES

tetik pasatzea, eta hori ez du eremu honek eta antzeko beste batzuek ematen. Bestalde, seinalatu egiten da, baina ez da erreparazio prozesu bat zabaltzen, baizik eta betiko zigor erdua birsortzera deitzen da».

Halaber, sare-sozialak tresna erabilgarriak izan arren, euren arriskua mahai-gainean jarri dute: «Sare-sozialek dituzten ondorioek erabiltzen dituztenen eskuetatik ihes egiten dute, eta aurreikusten ez ditugun edo nahi ez ditugun ondorioak izan ditzakete».

Hala, nabarmendu dute sistema heteropatriarkal batetik eratorritako jarrera eta jokabide matxistakaz amaitu gura dutela, baina ez horiek erreproduzitzen dituzten pertsonakaz, «herri osoa 'kantzelatuko' genukeelako orduan».

Ildo beretik, militante feministek uste dute pertsona bakar batengan fokua jartzerakoan bistaz galtzen dela arazo estrukturala. Horregatik, besteak beste, kontu horretan salatu diren Itzubaltzeta/Romoko kasuen aurrean jokatzekeo «denbora» behar dutela onartu dute, eta hausnarketarako gune komunitarioak sortuko dituztela azaldu dute.

Batez ere, zigor-eredua birpentsatu eta eztabaidatu gura dute: «Itzubaltzeta/Romok pitzadura horiek konpontzeko zer behar duen pentsatu behar dugu. Hori errepikatuko dela argi izan behar dugu, eta ikusi behar dugu zer me-

**«Guk erasoei erantzuteko modu kolektiboak nahi ditugu, baina baita patriarkatua bere osotasunean suntsitzeko tresnak ere, eta horiek sortzeko lanean jarraituko dugu»**

**HAZIAK, SUGARRI ETA SORGINEN ALABAK TALDE FEMINISTAK**

kanismo jar dezakegun martxan benetako aldaketa bat egon dadin eta elkar zaintzeko. Ildo horretan, bilera bat deitu genuen herriko eragile ezberdinekin, eta zigor-ereduen alternatibei eta konponketarako prozesu komunitarioei buruzko topaketa batean pentsatzen ari gara».

Bestalde, Haziak, Sugarri eta Sorginen Alabak talde feministek sare-sozial ezberdinetatik egindako salaketan inguruan sakon hausnartu dute, eta haiek ere uste dute sareetatik egindako salaketak «lehen pausoa besterik ez direla».

«Mugimendu Feministak azken hamarkadetan egindako lanaren eroale gara gu ere, indarkeria era egituratuan ulertu eta horri erantzuteko tresnak garatu dituen. Uste dugu indarkeria hala ulertu behar dela, ez norbanako batzuei eragiten dien fenomeno gisa —horrek erasotutako berbiktimizatu egiten baititu beste gauza askoren artean—, baizik eta sistema oso bat eusteko ezinbesteko indarkeria zuzen gisa. Guk erasoei erantzuteko modu kolektiboak nahi ditugu, baina baita patriarkatua bere osotasunean suntsitzeko tresnak ere, eta horiek sortzeko lanean jarraituko dugu».

Sarean zein kalean, erasoen aurrean antolatzekeo eta indarrak kolektibizatzekeo beharra lehenetsi dute eskualdeko talde feministek, betiere helburu berdinekin jarraikita: jazarpen matxistei erantzuna ematea eta horiekaz betiko amaitzea. ◀





# Sarakoetxeko err



**1960 ingurura arte, Sarakoetxeko auzotarrek irailaren 8ko Andra Mari erromeria bereziaz gozatzen zuten Basordaportuko kalaren inguruan. Alabaina, Lemoizko zentral nuklearra inguru natural horretan eraiki zuten, eta, ondorioz, 50 urte baino gehiago egon dira erromeria hori egin barik. Duela hiru urte hasi ziren jaieguna berreskuratzeko ahaleginetan, betiere antzinako ohiturak presente edukiz. Hona hemen Sarakoetxeko erromeriaren historiaren zati bat, iruditan.**

TESTUAK: NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶






# omeria berpiztuz





Jendea Basordaportun egunpasa. ARGAZKIA: ALVARO THATE



ARGAZKIA: PEDRO ITURRI





ARGAZKIA: MAITE UGARTE



Murutzeaga baserriko ataria mezarako apainduta.

ARGAZKIA: LUISA MARI



Sarakoetxeko erromeria 2024an. ARGAZKIA: LEMOIZKO UDALA

Poz-pozik erromeriara bidean. ARGAZKIA: IRATI GOIKOETXEA









**Karla Llanos** *Memorias de Getxo eta Fotografías Antiguas de Getxo (1865-1936)*

# «Galdu duguna baloratzeko balio du liburu honek»

**Getxoren iraganeko pasarteak eta irudiak ezagutzeko, *Memorias de Getxo* bloga ezinbesteko iturri bihurtu da. Bere sortzailea, bizitza osoa udalerrian eman duen getxoztarra, historiaren zati ahaztuak berreskuratzen dabil 2011tik. Orain, blogetik liburura egin du jauzi, Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, *Fotografías Antiguas de Getxo (1865-1936)* lanagaz.**

TESTUAK: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

**Memorias de Getxo** blog ezagunaren atzean dagoen pertsona zara zu; zerk bultzatu zintuen Getxoko historiako pasarteak eta argazkiak biltzera? Batez ere, Getxon jaio nintzelako, Areetan, nahiz eta Romon bizi izan naizen 26 urte bete arte. Gero, azken 50 urteak Andra Marin eman ditut. Bizitza osoa eman dut udalerrian, eta askotan ohartu naiz gauza batzuk betidanik ikusi eta ezagutzen ditugula, baina ez dakigula zergatik dauden hor, ezta zehazki zer diren ere. Orduan, erretiroa hartu nuenean, gauza ezezagun horiei buruzko informazioa biltzen hastea erabaki nuen, eta bizilagunei transmititu. Horrela hasi zen dena 2011n.

**Bloga elikatzetik liburu bat argitaratzera egin duzu salto orain. Zelakoa izan da prozesua?** Getxoko Kultur Etxeak jo zuen nigana, 1865 eta 1936 arteko irudiekin udalerriko argazki-liburu bat egin nahi ote nuen galdetuz. Baldintza batekin onartu nuen: nire poltsikotik ogerleko bat bera ere ez gastatzea. San Nikolaseko liburutegiko artxiboko argazkiak eskaini zizkidaten, 2.500 inguru, eta horietatik 200 bat hautatzeko eskatu zidaten. Aldi horren bilduma bat egin nuen, eta haiek bazuten egitura bat libururako pentsatua, baina nire ideia beste bat zen, hurrengo liburuan garatuko dudana: 1936-1975 aldikoa, non auzoka antolatuta nahi dudana dena.

2011tik dabil Karla Llanos Getxoko historia arakatzeko eta publikatzen bere *Memorias de Getxo* blogean. Iaz, 2024an, Getxoko Kultur Etxeak proposamen bat egin zion, garai bateko argazki bilduma bat aztertzea eta aukeratutako irudiak liburu bat argitaratzea. E-maila: [Fotografías Antiguas de Getxo \(1865-1936\)](#). Daborduko salgai dago liburu-dendetan.


**Argazki-kamera askorik ez zegoen garai bat landu duzu liburu honetan...** Hain zuzen ere, garai hartan ez zegoen argazki-makinarik gurean, Getxora etorri eta argazki bat egiten zuen argazkilari profesionalen bat izan ezik. Gainerako irudiak familia oso dirudunetakoak dira, kamera bat erabil zezaketenak, gainerako herritarrek ez baitzuten argazkiak egiteko aukerarik.

40ko hamarkadatik aurrera, eta are gehiago 60kotik aurrera, argazki gehiago agertzen hasi ziren. Garai hartan, pixkanaka, jende gehiagok zituen kamerak, nahiz eta oraindik mugatua izan. Eta orain, noski, edonork du mugikorra eta argazki bat edo hamar mila egin ditzake, errebelatzearen kostua ez baita arazo bat.

**Zer-motatako irudiak topatu dituzu liburu honetarako?** Paisaiak, batez ere; batzuk oso interesgarriak, Indalecio Ojangurenena, adibidez. Gero, postal zahar batzuk ere badaude.

**Nola definituko zenuke orduko Getxo hura?** Getxo hura «zuri-beltzeko» Getxo bat zen. Eta hori ez da argazkigintzagatik bakarrik, sortzen duen atsekabe sentsazioagatik ere bai. Getxo politago bat zen; izan ere, dena ez zegoen eraikinez beteta, gune ireki gehiago zeuden, eta gaur egungoaren oso bestelako paisaia zen inguruotakoa. Herri hartan oraindik





Gaur egun Areeta eta Itzubaltzeta/Romo auzoak hartuko luketen lursailak, eta fondoan Portugalete. GETXOKO LIBURUTEGIAK

ez zegoen argirik, ez kaleetan, ez etxeetan, eta ura iristear zegoen. Azken batean, hastapen-tako Getxo bat zen, gaur egun ezagutzen dugunaren oso bestelako leku bat.

**Ba al dago arreta eman dizun argazkirik?** Bai, liburuaren azalean agertzen dena; berezia da bi auzoaldi berean biltzen dituen bakarra delako: alde batetik, Algorta, San Inazio elizarekin, eta, bestetik, Areeta, hondartzarekin.

**Argazki horiek, paisaiez gain, lanbideak edo pertsonak erakusten dituzte?** Bai, badago baten bat, baina gutxi dira, garai hartan ez baitziren paisaiak edo ondarea bezainbeste dokumentatzen. Argazkiak aukeratzeko orduan, interesgarriagoa iruditu zitzaidan ikuspegi orokorretan eta ondarean zentratzea, ez baitzegoen atal zabal bat betetzeko adina ofizioen irudirik. Hala ere, argazkietan islatutako lan batzuk ikus daitezke.

**Zure ustez, nola lagundu dezake liburu honek Getxoko udalerria ezagutzen?** Gazteenek bizi izan ez duten Getxo ezagut dezaten gehienbat. Galdu dena baloratzeko ere balio du, hala nola

### Iraganari begiratzeko leihoa

«Liburu honek aukera ematen du Getxo zelakoa izan zen ezagutzeko. Baliagarria da, batez ere, gazteenentzako. Galdu dena baloratzeko ere, hala nola Titan garabia eta jada existitzen ez diren eraikin historiko adierazgarri asko»

Titan garabia eta jada existitzen ez diren eraikin historiko adierazgarri asko.

**Zer-nolako garrantzia dute eraikin historiko horiek auzoen nortasuna islatzerakoan?** Getxoko eremu jakin baterako zerbait irudikatzen duten lekuak dira. Adibidez, eta hau nire iritzia da, Romoko mojen komentua eraistea auzoari geratzen zitzaion nortasun ezaugarri bakarrenetakoa galtzea izan da. 1930eko eraikin historikoa zen, eta haren desagertzea auzoaren nortasuna galtzea ekarri du.

**Getxoko auzo bakoitzak bere nortasun propioa du, ezta?** Bai, eta hori beti izan da horrela. Hain da horrela, non bere garaian Areeta-koak Getxotik independizatzeko mugimendu bat egiten saiatu ziren. Madrilerara ere eraman zuten proposamena, Parlamentura, baina, azkenean, gelditu eta baretu egin zen. Are gehiago, hain serioa izan zen, non Areetako abesti independentista bat konposatu zuten Getxorekiko; 1894az ari gara, gutxi gorabehera.

**Getxo asko aldatu da urteotan?** Bai, asko aldatu da. Adibidez, 60ko hamarkadan, auzo ba-




koitzaren mugak oso argi eta ondo markatuta zeuden. Gaur egun, ia bat egin dute, eta zaila da lehengo argitasun berarekin bereiztea. Baina hirigintza ez ezik, bizitzeko modua ere aldatu da. Ez dira gauza bera 50eko hamarkadako bizitza eta oraingoa. Garai hartan, jendea gabezia askorekin bizi zen, beste batzuek eragindako gerratik atera berritan, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera gutxiagorekin. Gaur egun, desberdintasunak dauden arren, ia dena eskuragarriago dago. Baina lehen gabeziak izugarriak ziren.

**Zertan eta non ikus ditzakegu aldaketa horiek?** XX. mendearen hasieran, gaur egun Romo izenez ezagutzen dugunak Santa Eugeniako Ibarra zuen izena, eta etxe pare bat eta Vitoria izeneko baten patata-sail handi bat besterik ez zegoen bertan. Areea, berriz, pixoihaletan zegoen oraindik. Bilbotarrak gaur egun Abrako Maritimoa dagoen lekura joaten ziren itsas bainuetara, eta Bilboko jauntxoek eraikitako etxe eta txalet batzuk ere bazeuden han, hiriko kutsaduratik, infekzioetatik eta bizimodu itogarritik ihesi. Lehenengo, udako egoitzak Areetara eraman zituzten, eta, gero, Algortara mugitu ziren.

**Trenbidearen etorrerak ere goitik behera aldatu zuen udalerrria, ezta?** Aldaketa handia ekarri zuen. Lehenengo trenbidearen ibilbidea Kale Nagusiaren eta Santa Ana kalearen arteko izkinaraino iristen zen, itsas bainuen negozioa Agirretarrena zelako, eta haiek erai ki zuten burdinbidea; trena haien negozioaren ateraino irits zedin. Algorta, aldiz, oraindik hazten ari zen. Basagoiti etorbidea eta portuko zenbait gune eraikita zeuden, baina gainerakoa garapen beteaz zegoen. Getxoko Andra Marik, bestalde, baserri gutxi batzuk eta eliza baino ez zituen. Beraz, bai, Getxo asko aldatu da, bai bere egiturari, bai jendearen bizimoduan.

**Nolako eragina izan zuen ere Bizkaia Zubia eraikitzeak udalerrriaren berrantolaketan?** Bizkaia Zubiak udalerrriaren dinamika erabat aldatu zuen. Garrantzitsuena da bi ertzen arteko joan-etorria erraztu zuela, batez ere barnealdeko jendearentzat. Izan ere, baserri-tarrek itsasadarra zeharkatu behar zuten Portugaleteko azokan euren produktuak saltzeko, eta zubia baino lehen, gurutzatzeko modu bakarra arraun-txalupak ziren. Horrek asko zailtzen zuen salgaien eta animalien garraioa. Imajinatu behi bat arraunean pasatzea: prozesu zaila zen, baina egiten zen!

Zubiarekin, hori aldatu egin zen, eta Portugaleteko plazara azkarrago eta seguruago iris-



Getxoko Liburutegiak - Bibliotecas de Getxo



Getxoko Liburutegiak - Bibliotecas de Getxo

Goian, Titan garabia; behean, arrantzaleak Portu Zaharrean. GETXOKO LIBURUTEGIAK

## Bloga, udalerriko historian erreferente

«Oro har, jendeak positiboki hartzen ditu idatzitakoak, eta jarraitza animatzen naute. Badira kritika negatiboak egiten dizkidentenak ere, baina ez zait axola. Nik artxiboetan lortutako informazioetan oinarritzen naiz, ez dut ezer asmatzen»

teko aukera eman zuen, garai hartan funtsezko merkataritza-gunea baitzen.

**Memorias de Getxo bloga erreferente bihurtu da udalerrian askorentzat. Kritikarik jaso duzu inoiz?** Oro har, jendeak positiboki hartzen ditu idatzitakoak. Askok jarraitza animatzen naute eta, batez ere, gehiago argitaratzeko eskatzen didate, asko interesatzen baitzaie udalerrriaren historia.

Kritika negatiboak ere izan dira, baina, egia esan, bost axola zait. Adibidez, Gerra Zibilaren ondorioz Getxon bizi izandakoei buruz hainbat artikulua argitaratu nituenean; Udal Artxiboko informazioan oinarrituta, garai hartan euren bizilagunen aurkako salaketen inguruan artikulua bat idatzi nuen, eta suminduta zegoen norbaitek (Negurikoak, seguru asko) idatzi zidan hori nola esan nezakeen galdetuz. Nire erantzuna argia izan zen: «Begira, esaizu zure aitari, hark sinatu baitzituen salaketak». Eta hor amaitu zen eztabaida; ez nuen berarekin gatazkan hasteko gogorik, baina dokumentuak hor daude. Zalantzarik bazuen, jo zezala Udal Artxibora, bilatu espedientea eta irakurri. Nik ez dut ezer asmatu. ◀



# Otsaila-martxoa

## Barrika

Otsailak 21, barikua

**Ludoteka: Euskal mitologia**

18:00 | Ander Deuna aretoan

Izen-ematea telefonoz edo emailaz: 946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus.

Otsailak 22, zapatua

**Hitzaldia: Dibertsitate funtzionala naturalizatzea**

19:00 | Ander Deuna aretoan

Nola sentitzen gara desgaitasuna duten pertsonekin harremanetan jartzen garenean?

Otsailak 26, eguaztena

**Ipuinaren ordua: Munstro urdina**

18:00 | Liburutegian

Izen-ematea telefonoz edo emailaz: 946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus.

## Berango

Otsailak 16, domeka

**Zinema: Doraemon**

18:00 | Berango Antzokia

Animazio-zinema umeentzat.

Otsailak 22, zapatua

**Mundu bat Motxilan**

19:00 | Berango Antzokian

Proiektzioa eta solasaldia Alex Txikonegaz.

Otsailak 23, domeka

**Antzerkia: Bonba bat naiz**

18:00 | Berango Antzokian

Umorezko antzezlan 5 urtetik gorakoentzat.

## Erandio

Otsailak 16, domeka

**Antzerkia: Arizona**

19:00 | Merkatu Zaharrea

Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola.

Otsailak 19, eguaztena

**Hitzaldia: Gure seme-alabak eta mugikorra**

17:00 | Bekoa ikastetxean

Izen-ematea: eisep8@erandio.eus eta 944 170 007.

Otsailak 21 eta 22

**Gure! jaialdia**

Altzagan

Hainbat arlotako ikuskizunak eta proposamenak bateratuko dituen jaialdiaren hirugarren aldia antolatuko dute Tartanga LHIIko ikasleek.

## Getxo

Otsailak 14, barikua

**Antzerkia: Renata**

20:00 | Muxikebarrin

Renata etengabe hil eta berpizten da.

Otsailaren 21etik 23ra

**Getxo Live jaialdia**

20:00 | Muxikebarrin

Bederatzi talde getxoztar arituko dira jaialdiaren lehen edizioan. Programazioa osorik hirua.eus-en.

Otsailak 22, zapatua

**Abra Saria**

18:00 | Algortan

Bertsolariak: Haira Aizpuru, Janire Arrizabalaga, Peio Lago, Naia Arrizabalaga, Sabin Abarrategi, Ekhiñe Zapiain, Kelmene Abaitua eta Hodei Munduate.

Otsailak 28, barikua

**Antzerkia: Epaiketa arrotzari**

20:00 | Muxikebarrin

Obra parte-hartzailea.

## Gorliz

Otsailak 26, eguaztena

**Irakurle-taldea: Zaldi Mamarroa**

19:00 | Sertutxenan

Ekaitz Goienetxearen liburuaz arituko dira.

## Leioa

Otsailak 21, barikua

**Antzerkia: Anonimos**

19:00 | Kultur Leioan

Zenbateraino manipula ditzakegu geure pentsamenduak, errealitateak ihes egiteko bada?

Otsailaren 21etik martxoaren 16ra

**Erakusketa: Indusen Ibilbideak**

Kultur Leioan

Igone Mariezkurrenaren Pakistanera egindako bidaietan dokumentatutako errealitateak.

Otsailak 23, domeka

**Antzerkia: Elara, bidaiak bat izarretara**

18:00 | Kultur Leioan

Familia guztiarentzako antzerkia euskaraz.

## Lemoiz

Otsailak 9, domeka

**Laborategi zoroa**

18:00 | Armintzako kultur etxean

Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunean.

Otsailak 23, domeka

**Umeentzako zinema**

18:00 | Urizarreko kultur gelan

Martxoak 1, zapatua

**Inauterietako diskofesta**

18:00 | Armintzako frontoian

Tailerrak ere egingo dituzte 2an eta 3an, Urizarren eta Andrakan, hurrenez hurren.

## Plentzia

Otsailak 12, eguaztena

**Hitzaldia: Desazkundera**

19:00 | Goñi Portalen

Makroproiektuen inguruan arituko da Tomi Etxeandia.

Otsailak 19, eguaztena

**Hitzaldia: Aurretiazko borondateen dokumentua**

17:30 | Goñi Portalen

Otsailak 28, barikua

**Eskolako inauteriak**

11:00 | Plentzia eskolan

Intsektuak izango da aurtengo gaia.

## Sopela

Otsailak 23, domeka

**Zinema: Poley. Bakarrik hegan inoiz ez**

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Familientzako animazioa filma.

Otsailak 23, domeka

**Dantza: Tú y yo**

17:00 | Kurtzio kultur etxean

Inguratzen dituen guztia arnasten duten bi gorputz.

## Urduliz

Otsailak 14, barikua

**Euskaraldiaren aurkezpena**

18:30 | Kultur etxean

4. Euskaraldiaren aurkezpena eta antolaketa.

Otsailak 16, domeka

**3. Putxera Txapelketa**

Marutze frontoian

Izen-emateak 09:00etan irekiko dituzte.

Otsailaren 24tik 28ra

**Erakusketa: Migrazioa eta klima aldaketa**

Kultur etxean

Herriarte elkarteak antolatuta.





**OTSAILAK 7**  
Auditorium // 20:30 // 10 €

**QUIERO COLAPSAR A TU LADO**  
La Rueda Teatro Social (Madrid)



**OTSAILAK 14**  
Auditorium // 20:30 // 10 €

**MADRES**  
Txalo Producciones (Euskadi)



**OTSAILAK 21**  
Auditorium // 19:00 // 10 €

**ANÓNIMOS**  
Rauxa Cia (Katalunia)



**OTSAILAK 23**  
Auditorium // 18:00 // 6 €

**ELARA, BIDAIA BAT IZARRETARA**  
Mar-Mar Teatro (Euskadi)





## Lehen/Orain **Plentziako Goienkale kalea, XX. mendean hasieran**



ITURRIA: GONZALO DUO

## Uribitakora



**ALBE**

**Algortako  
Bertsolari  
Eskola**

### TESTUA

Aitor Fdez. de  
Martikorena

### DOINUA

Aita izena kanta  
beharrak

### ARGAZKIA

Hodei Torres

## Udaberria darraio

*Egunsentia loratzear da  
basamortu soil arrear;  
etxea hutsik da ezkerrean,  
zuhaitza beste aldean;  
etxean inor ez ei da bizi,  
historik ez landarean...  
Negu gorria antzematen da,  
landa goibel idorrean...  
Neure burua ikus dezaket  
fotoari behatzean.*

*Azken boladan, horrela nabil:  
ilun, ilaun, aienatu.  
Orri berdeak erori zaizkit,  
poza ezin dut topatu.  
Bakardadea dut maizter bakar,  
nigan hartu du ostatu...  
hotz naiz barruan eta odola  
jela gisa zait paratu...  
Inor ez daukat bihotz barnean,  
Ez dut, bada, nor maitatu.*

*Baina, ohi legez, negu hotzari  
udaberria darraio.  
Beroa datorkidalakoan,  
aiduru lotu natzaio.  
Hosto berdeak hoziko dira,  
grinak hartuko abio...  
etxean ere azalduko da  
norbait alai, norbait iaio!  
Horrekin laster izozteari  
amaiera\_emango zaio.*



**Gorliz eta Plentzia** Geuretik Sortuak

# Gorlizek eta Plentziak euskal sortzaileen egonaldi artistikoak hartuko dituzte

**Udalbiltzak bultzatzen duen ekimen nazional honek artea, kultura eta tokiko kontakizunak batzen ditu. Horri esker, artistek egonaldi artistikoak egingo dituzte udalerriotan.**



**Geuretik Sortuak egitasmoa hirugarren aldiko aurkezpena, antolatzaileak, udaletako ordezkariak eta artistakaz.**  
UDALBILTZA

**P**lentziak eta Gorlizek Geuretik Sortuak nazio mailako kultur proiektuaren egonaldi artistikoak hartuko dituzte, euskal artisten sormena sustatzea eta euren lanak Euskal Herriko herrietako kontakizun eta historiakaz lotzea helburu duen ekimenean. Udalbiltzak sustatutako programa honek artea euskaraz sortzea eta zabaltzea bultzatzea du xede, komunitateen eta sortzaileen arteko lotura areagotzeko.

Oraingo honetan, Maitane Perez idazlea Gorlizen izango da, eta Ekhiñe Famosok antzerki-obra bat garatuko du Plentzian. Gainera, Maitane Nerekanek ere beka horretan parte hartuko du; bere kasuan, Amasa-Villabonan.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, Geuretik Sortuak kultur bekaren hirugarren aldiak inoiz baino parte-hartze kopururik altuena lortu du aurten: 46 udalerrri eta 30 sortzaile. Hala ere, orain arteko moldeari eutsiko diote eta konpainia edo artista bakoitzari udalerrri bat edo gehiago esleitu diote kultur jarduera garatzeko egonaldia egiteko. Arduradunek azaldu dute gauzak non eta nola sortzen diren azpimarratu gura duen egitasmoa dela; ipuin, komiki zein antzerki baten bitartez. ◀

## LOR<LDIA FESTIBALA

**TRIKUA ESNATU DA**  
**11. EDIZIOA | 2025**  
**MARTXOAK 10-30**  
**BILBON**

Erika Olaizola. Iraia Elias. Amancay Gaztañaga. Xanti Agirrezabala. Jonan Ordorika. Miren Narbaiza. Hiru Truku. Joseba Tapia. Rafa Rueda. Maddi Oihenart. Beñat Achiary. Ihitz Iriart. Julen Achiary. Mixel Etxekopar. Eliane Héguiphaph. Pierre Vissler. Jordi Cassagne. Darlene Gijuminag. Claudine Arhancet. Oskar Alegria. Josune Velez de Mendizabal. Jone Bengoa. Karlos Arancegui. Imanol Ubeda. Ainhoa Alberdi. Oier Gillan. Xabi Zeberio. Iñar Sastre. Aitor Etxebarria. Eñaut Zubizarreta. Idoia Tapia. Bloñ. Nerea Ibarzabal. Sustrai Colina. Miren Amuriza. Ainhoa Urien. Judit Neddermann. Unai Elorriaga. Josu Aurrekoetxea. Bob Dylan. Audience. Urbil Artola. Gorka Arranz. Julen Maestro. Jon Arzelus. Jose Mari Pulido. Dani Venegas. Mursego. Esanezin. Esti Markez. Maite Ruiz de Erentxun. Aura Mauri. Alexander Peña. Manuel Luque. Janire Etxabe. Mikel Ayllon. Irati Agirreazkuenaga. Iñigo Martinez. Edorta Jimenez. Oihana Arana. Ane Labaka. Gorka Urbizu.

**LORALDIAFESTIBALA.EUS**

Babesleak:



Ekoizlea:





Akaitze Kamiruaga Garitaonandia Sarakoetxeko erromeriaz

# «Herriko memoriaren atal bat errekuperatu dogu»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

**I**railaren 8an egiten zen Lemoizko Sara-koetxe auzoko Andra Mari erromeria. Urtez urte, Jatabeko, Bakioko eta Mungia-ko herritarrak hurbiltzen ziren egun berezia ospatzera, baina Lemoizko zentral nuklearra eraikitzeke lanak hastean, bertan behera gelditu zen tradizio berezia. Alabaina, 50 urteren ostean, lemoiztar batzuek erromeria berreskuratu zuten 2022an. Horregatik, Labayru Fundazioak, Lemoizko Udalgaz elkarlanean, Sarakoetxeko erromeriarik buruzko dokumentala sortu du. Akaitze Kamiruaga Garitaonandiak, Herri Ondareko zuzendariordeak, pieza honen garrantzia azaldu digu.

**Non dago Sarakoetxe?** Zentral nuklearreko lanak egiten hasi aurretik, Sarakoetxeko auzo txikia zen inguru hori. Hamar baserri egozan hor; gaur egun, lau baino ez dagoz, gehienak, hutsik. Lemoizeko auzo bat da, baina muga egiten dau Jatabegaz, Bakiogaz... Kontuan hartu behar da, lehen, lurrez, Sarakoetxe auzo horren erdia Mungia zala. Horrek eragina eukiten eban erromeria horretara etorten zan jenteeagaz.

**Nolakoa zen erromeri hura?** Erromeria eguneko jaia izaten zan: goizean egiten zan meza bat eta eguerdian soinuariak egozan. Eskota bere egiten zan: ardauren bila joaten ziren Arminzara, Andrakara edo Mungira. Zaragia erosten eben eta idi-gurdia eroaten eben ardaua ekarteko. Erritual moduko bat zan: gazteak bueltan idi-gurdiagaz etozanean, soinuari eta guzti etorten ziran. Hori izaten zan bidean agertzen zan jente guztiari erromeriarik etorteko konbita egitea lez. Erosten eben ardaua gero egun horretan jaira joan jenteari banatzeko.

Gero, arratsaldean, soinuariak egozan eta jenteeak dantza egiten eban. Hango baserrietan egun hori egun handia izaten zan eta ohikoa izaten zan familiako jente guztia etortea. Jente asko batzen zan. Baina zentralerako lanak hasi zirenean, 60ko hamarkadaren amaieran, erromeria hori egiteari itxi jakon.

50 urte inguruan ez da egin erromeriarik. Orduan, Lemoizko herritar batzuek pentsau dabe erromeria hori barriro errekuperatzea eta guk egin doguna da memoria hori berreskuratu.



«Lan hau egiteko beste hamar urte itxaron bagendu, seguruenik ez genduan ezer batzeko aukerarik izango»

AKAITZE KAMIRUAGA  
GARITAONANDIA  
LABAYRU FUNDAZIOA

## Eskota

«Eskota bere egiten zan: gazteak ardauren bila joaten ziran Arminzara, Andrakara edo Mungira. Zaragia erosi eta idi-gurdian ekarten eben. Erritual moduko bat zan»

## Dokumentala

Urtarrilaren 31n aurkeztu zuten dokumentala Urizarreko kultur gelan. Hala ere, ikusgai dago Labayruko Youtube kanalean, eta Lemoizko Udaleko webgunean ere argitaratuko dute.

**Nolakoa izan da dokumentala egiteko lana eta prozesua?** Edadeko jenteari bidez alkarriketak eginda. Euren ume edo gazte denporatoko oroitzapenak dira.

Horregaz osatu dogu hari narratiboa eta batu dogu jaiegun horretan zer egiten zan. Erromeria errekuperatu nahi bada, behintzat jendeak jakin dagiala lehen zelan egiten zan, zergaitik egiten zan eta oinarri bat eukiteko.

**Nolakoa izan da prozesua?** Labayrun metologia bardina erabilten dogu beti. Lehengo eta behin, geure ikerketa lana egiten dogu, eta, gero, alkarriketak lekukoei. Egia da kasu honetan ez dala egon informazio askorik, baina lekukoak Udalak berak aukeratu ditu, eta beste batzuk geuk lortu doguz; guztira, 9 lekuko. Gero, argazki zaharren bilketa bat egiten dogu geuk bere. Nahiko argazki agertu dira, azkenean, familietan beti gorde-ten da zeozer. Batez bere, momentu honetan zentrala dagoan Basorda kalatxu horretako argazki nahikotxu batu dira. Jenteak pozarren hartu dau parte dokumentalean, azkenean herriko memoriaren atal bat errekuperatu dogu.

**Zailtasunik izan duzue?** Txarrena da erromeria beraren irudi gutxi egon dala. Erretratu gehienak dira inguru horretako argazkiak, baina ez justu erromeria egunekoak. Orduan argazkirik ez zan egiten, bideorik pentsau bere ez, jakine. Aurten, herritarrek hirugarren urtez egin dabe jaieguna eta gu grabatzen egon ginan. Beraz, aurtengo errekurtsioak erabili doguz dokumentalean.

**Zergatik uste duzu dela garrantzitsua dokumental hau?** Beste 10 urte itxaron bagendu lan hau egiteko, seguruenik ezin izango genduan ezer batu. Gaur egun parte hartu dabena edade batekoak dira eta euren ume eta gazte denporatoko oroitzapenak dira. Era honetako berreskuratze-lanak egin ezik gero eta zailago izaten da informazioa batzea. Gure historia da, gure herri ondarea eta gure bizimodua. Hori guztia berreskuratzea eta gero, hori gizarteratzea oso garrantzitsua da. Lemoizko gazteek jakin dagien erromeria hori egiten zala. ◀



**Mikel Begoña eta Igor Sarralde** *Argia iraungi zen tokia* komikia

# «Gidoilariaren eta marrazkilariaren elkarlanetik sortzen dira pertsonaiak»

ANDER ZARRAGA ▶

**E**sklabotzan aritu zen gorliztar baten arrastoari jarraituz, Karibearen giro-tako espioitza eta esklaboen matxinaden istorioa sortu dute Mikel Begoña gidoilariak eta Igor Sarralde ilustratzaileak: *Argia iraungi zen tokia*. Komikia euskaraz zein gazteleraz argitaratu dute Harriet argitaletxeagaz, eta, otsailaren 28an, Plentziako Plasentia de Butron Museoa aurkeztuko dute, euskaraz, 18:00etan.

**Ezer baino lehen, Joseph Tribiñu gorliztarra nor izan zen jakin beharko genuke, istorioa bere bizipenetatik abiatzen baita, ezta?**

**MIKEL BEGOÑA:** Joseph Tribiñu Billabaso XVIII. mendeko itsas kapitain bat izan zen, 1756an Gorlizen jaio eta 1828an New Orleansen (AEB) hil zena. Gazterik Ameriketara joan eta bertakotu egin zen. Bere base logistikoa New Orleansen izan zuen eta itsasoarekin lotutako hainbat negoziotan ibili zen, besteak beste, esklaboen salerosketan. Bitxia da, baina emakume beltz batez «ezkondu» zen, New Orleansen legezkoak izan ez arren, elkartze horiek baimenduta zeudelako eta oso normalak baitziren. Harreman horretatik afroamerikarren eskubide zibilen aldeko ekintzaile ospetsu bat sortu zen. Bestalde, Tribiñu esklaboen salmentan ibili arren, New Orleanseko artxiboetako agirietan ikusi dugu esklaboak lagundu zituela ere euren askatasuna lortzeko prozesuetan.

**Komikian errealitatea eta fikzioa bateratu dituzue, zein da fidelitasun historikoaren eta sormen narratiboaren arteko oreka?**

M. B.: Komikian kontatzen dugun pasarte nagusia da Nueva Orleansetik Jamaikara Tribiñuk egindako itsas bidaia, benetakoa, baina bidaia horren detaile askorik ez daukagu; esklaboak garraiatu zituela bai, besterik ez. Hutsuneak fikzioak bete ditu. Bestalde, garai hartan badakigu esklaboen etengabeko altxamenduak izan zirela Jamaikan. Errealitate horietatik tiraka, fikzionatua den istorio bat sortu dugu.

**Nola sortu zen bion arteko lankidetzak?**

**IGOR SARRALDE:** Portugaleteko komiki-lehiaketara aurkeztu eta euskarazko accesita



Igor Sarralde eta Mikel Begoña *Argia iraungi zen tokia* komikia eskuan dutela.

hirukalagunen txokora joan eta parte hartu ZOZKETAN

**«Jamaikako mendietan zimarroiek benetako erreinu independenteak eraiki zituzten, eta garai hartako buruzagi mitiko baten alaba ekarri dugu komikira: Nanny Young»**

irabazi nuenean, Mikelek nire lana ikusi eta sare sozialen bidez nirekin harremanetan jarri zen; batera lan egitea proposatu zidan eta nik pozik baietz esan!

M. B.: Gainera, Igor Algortan bizi zenez, Uribe Kostako historia eta istorioak garatzeko gertu izatea aproposa zela pentsatu nuen, eta hara... Bartzelonan ez da bizi ba!

**Nolako eragina izan du lankidetzak pertsonaien eta istorioaren garapenean?**

I. S.: Zorte handia izan nuen Mikelekin, berak zer marraztu nahi nuen galdetu baitzidan; urte luze bat gai bat marrazten pasako duzunean eskertzekoa da hori. Industriaurreko itsas abentura bat proposatu nion eta berak aspaldi buruan bueltaka zeukan eta ikerketaren bitartez azaldutako istorio hau sortzen joan zen. Gero, komikian aurrera gindoazen heinean, Mikel ikerketa historikoa sakontzen joan da eta datu interesgarri berri batzuk sartu ditugu. Horrez gain, marrazkiak eta plan txak ikusita, elkarrizketa edota pasarte batzuk aldatu edo egokitzen joan gara.

M. B.: Komikietan gidoilariaren eta marrazkilariaren elkarlanetik sortzen dira pertsonaiak, bakoitzak bere ikuspegia eta ekarpena gehituz; komiki honetan ere prozesu bera jarraitu dugu. ◀



Irakurri ezazu elkarrizketa osoa [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) webgunean edo goiko QR kodigoa eskaneatuta.



## Zaintzaren ajeak

**GOTZONE BUTRON** Idazlea



**N**oren ardura dira mendeko edadekoak? Lagun batek diost, zergadunak diren heinean, erakundeena direla, baina gobernuak eta enpresek asmatu duten egoitza sistema nahiko interesatua dirudit, egoiliar bati diru publikotik 3.000 euro inguru bideratzen zaion bitartean, etxean dagoenari 300 euro egokitzen baitzaio. Beste batek diost berak ama jagon gura bai, baina ezin duela urrun bizi delako, aitatu barik ez dituela oporrak, bidaiak eta irteerak alde batera uzteko asmorik. Baten bateri entzun diot gurasoen etxean bizi den langileak zortzi orduko lanaldia egiten duela soilik, gaueko orduak guardiako orduak izango ez balira lez. Askok diote poztekoa dela amari etxean kargu hartzea, eta arduratzen ez diren neba-arrebak damutu egingo direla nozonoiz, agerikoa den argudio katoliko paternalista erabiliz. Gainera, etxean dagoen menpekoak jagolea izango du, seguru antzean andrazkoa, seguru antzean bere familia edonoren ardurapean utzi duen etorkina.

Orduan, zer proposatzen duzu? Galdetu didate arestian. Neuk baneki! Lehenik eta behin, gaia eremu pribatutik eremu publikora atera, kuantifikatu eta politikaren erdigunean jarri. Eta bien bitartean? Bien bitartean, ai! Buruko minak eta ajeak.

## Aro berri bat martxan

**UGO MAYOR** Ikerbasque irakasle-ikertzailea EHU



**P**aradoxikoa bada ere, Erdi Arotik datoz unibertsitateak. Sasoi hartako eraikin akademikoak ikusita (Cambridgekoak, adibidez), zalantza sortu ahal zaigu gotorleku haiek *scholars*-ak babesteko ziren edo, *Il nome della rosa*-n iradokitzen den moduan, ezagutza bera ezkutatzeko.

Ilustrazioak ezagutzaren transferentzia eta difusioa ekarri zuen, iraultza teknologikoez Europa garai ilun haietatik ateraz. Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen ezagutzatik bakarrik eraiki daitekeela mundu hobego bat, non ongizatea ez den gutxi batzuen pribilegioa izango. Kontran, buloetan oinarritutako erabakiek gure bizitza kalitateari kalte egiten diote.

Baina ikerketa ezberdinek gizartean sortutako onura norainokoa den badakigu? Zientziaren bikaintasuna neurtzeko moduak baditugu. Ezagutzaren transferentziak duen inpaktu ekonomikoa, edota dibulgazio aktibitateen audientzia neurtzeko gai bagara ere. Nola kuantifikatu ordea ikerketa zehatzek sortutako ongizatea? Antza, ez da hain erraza inpaktu soziala neurtzea. Ikerlariok eskarmentua dugu ebidentziak biltzen. Jar gaitezen bada martxan, behingoz ametsa errealtate bihurtu dugun honetan, eta EHUK gizarteari bueltan ematen diona ikusarazi dezagun.

## Horoskopoa



### Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Norbaitek kontzertu baterako sarrera bat oparituko dizu laister. Entseatu harridura aurpegia, findu ahotsa eta prestatu aldakak!



### Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Den-denek esan dizute pertsona horretaz ez fidatzeko. Iritzi kritikoa izatea ona da, baina ez duzu uste oso susmagarria dela?



### Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Ez duzu alkohola gustuko, baina beti eskatzen duzu zurito bat presiopean. Izan ausarta eta eskatu gustuko duzun zuku goxo hori!



### Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Kirola egiten topera hasi zara, baina deskantsu egunak ere hartu beharko zenituzke. Bestela segituan nekatuko zara.



### Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zure mendiko bota zahar horiek aldatzeko momentua iritsi da... Bizitza luze eta zorionsua izan dute, egon lasai.



### Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Molestatzen badizu, esan ezazu! Besteak ez dira oraindino aztiak eta ezin dute zure pentsamendua irakurri.



### Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Ile-apaindegira joan beharra duzu, daborduko ezin ikusi zabilta daramazun kopeta-ile luze horregaz!



### Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Duela zenbat ez dituzula txikitako argazkiak begiratzen? Gogoratu nor zinen eta sentitu harro gaur egun zarenaz. Gora autozaintza!



### Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Gero eta hurbilago daude inauteriak. Lagunakaz ideia zaparrada polit bat egin, eta ez utzi mozorroa azken momenturako!



### Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Otsaileko hirugarren astean haserrealdi handi bat izango duzu. Prestatu zaitetz, dena hankaz gora jarriko da-eta!



### Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

2025 honetan *reggaetoizale* amorratua bilakatu zara. Zuk jakingo duzu hori berri ona ala txarra den.



### Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Ezagun guztiak haserre daude ez dituzulako kaletik agurtzen. Jarri itzazu betaurrekoak edo esan agur zure bizitza sozialari!



Euskarazko irakaskuntzaren alde;  
matrikulatu zure seme-alabak euskarazko ereduetan

# EUSKARA, gure etorkizuna



**2 eta 3 urteko UMEEN AURREMATRIKULAZIOA:**  
**otsailaren 3tik 14ra**

Zure zalantzak argitzeko:

[www.getxo.eus/euskara](http://www.getxo.eus/euskara)





Sakoneta Gimnasia Erritmika Taldea Lehen Maila

# «Tapizean adimen bakarria izan behar gara»

**Sakoneta Gimnasia Erritmika Taldeko Lehen Mailako boskoteak klubeko markak hautsi zituen abenduan, Espainiako Txapelketan lortu zuten brontzeko dominagaz.**

ANDER ZARRAGA ►

**T**aldekako lehiaketan maila horretara heltzea lortu duten gimnastak hauek dira: Araia Salazar, Eneko Lambea, June Orza, Naroa Ribeiro eta Julene Eraña, guztiak 18 eta 20 urte artekoak; Alba Lambea eta Judith Torralba dira taldeko entrenatzaileak. «Txapelketa nahiko zaila izan zen, Lehen Mailan lehiatzea oso zaila baita; hala ere, ondo pasatzea eta elkarrekin egotea zen benetan nahi genuena», gogoratu du Salazarrek. Bere aldetik, Eneko Lambeak onartu du ez zela euren txapelketarik onena izan: «Oso ona izan zen, baina ez onena; guk ondo egiteko, ondo pasatu behar dugu, baina hainbesteko tentsioarekin egoteak ez gintuen laguntzen; nik behintzat ez nuen hainbeste disfrutatu».

Euren lehiaketarik onena izan ez arren, Espainiako 18 talde onenak izan zituzten aurrez aurre eta, beraz, lorpena ez zen nolana hikoia. Lambea entrenatzaileak azpimarratu duenez, urtero zerotik hasten dira; izan ere, txapelketa txar bat eginez gero, kategoriaz jaitsi daitzke. «Hori gertatu zitzaigun, baina, denboraldi ona egin eta gero, Espainiako Senior Txapelketa irabazi eta Lehen Mailara bueltatu ginen». Hala ere, horri esker denboraldia beste jarrera batez hasi zutela gogoratu du Lambeak, «bagenekien galtzea zer zen, baina umore onarekin eta ondo pasatzeko helburuarekin joan ginen».

Abenduan, Iruñean egin zuten txapelketarako *Ghostbuster* filmeko abestiaren bertsiotik bat aukeratu zuten, hiru pilotakaz eta uztai bigaz egindako koreografia baterako. Gimnastek gogoratu dute *Aladdin* pelikulako abestiagaz emaitza oso ona lortu zutela aurreko txapelketan; beraz, beste film bateko musika eroatea erabaki zuten. Txapelketara zailtasun handiko muntaketa ikusgarria era-



Sakoneta GETko Lehen Mailako taldeko bost kideak. HO DEI TORRES

## Denboraldi borobila

**Iazko denboraldia ahaztezina izan zen Sakonetako gimnastentzat: Valladoliden Espainiako Senior Mailako txapeldunak izan ziren eta Lehen Mailan zilarra lortu zuten Espainiako Txapelketan. Gainera, ekainean, Eneko Lambea Lehen Mailako txapeldunorde izan zen Espainiako gizonezkoen bakarkako Txapelketan.**

man zuten, originala, teknikoki ikusgarria eta primeran gauzatua.

«**BIHOTZETIK**». Gimnastek denboraldi bi egiten dituzte urtero: urtarriletik ekainera, indibiduala, eta, irailtik abendura, taldeka. «Txapelketak antzekoak izan arren, taldeka egiten dugunean, tapizaren barruan adimen bakar bat bezalakoak izan behar gara, eta hori entrenatzen lortzen da bakarrik», adierazi du Eneko Lambeak. «Astean hainbat ordu entrenatzen ditugunez, benetan gustatu behar zaizun kirol bat izan behar da; bihotzetik egin behar duzu», gaineratu du Salazarrek. Ribeirok ere azpimarratu du konpromiso handia eskatzen duen kirol bat dela, bai entrenatzen duten ordu-kopuruagatik baita taldeagaz duten konpromisoagatik ere.

Sakoneta Gimnasia Erritmiko Taldeak izan dituen 40 urteko ibilbidean goiari eustea lortu duela goraiatu du Alba Lambeak: «Joko Olimpikoetara edo Espainiako txapelketetara joan diren gimnastak egon dira hemen, eta Lehen Mailan ere askotan lehiatu den taldea da, beraz, erreferentziako kluba gara Bizkaian». Gainontzeko taldekideak ere bat datoz horregaz, eta aipatu dute beraien aurretik bertan aritu zen Saioa Agirre bezalako puntako kirolari bat dutela erreferentzetatik; orain, eurak dira harrobia osatzen duten hainbat umeren eredu. ◀



Noa Vega Txirrindularia

# «10 urterekin hasi nintzen lehiaketetan»

**Noa Vega gorlitzarrak 14 urte besterik ez ditu, baina, daborduko, hainbat garaipen lortu ditu, hala nola azkena, As Pontesen irabazitako Espainiako Txapelketa.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

**Duela gutxi Espainiako ciclocrosseko txapela jantzi zenuen kadete mailan. Nola sentitzen zara garaipen horren ostean?** Oso pozik. Ez nuen irabaztea espero, baina alai hartu dut garaipena. As Pontesen (Galizia) izan zen txapelketa. Atera nintzenez eta bigarrenari denbora irabazi nionean, jakin nuen garaile izango nintzela.

**Zaila egin zitzaizun irabaztea?** Ez, ez zitzaidan zaila iruditu. Berez, asko disfrutatu nuen lehiaketa izan zen.

**Ez da irabazten duzun lehenengo titulua, ezta?** Irabazi nuen lehenengo txapelketa Bizkaikoa izan zen, Gorlizen. Horren osteko hurrengo astean, Euskadiko Txapelketa irabazi nuen, Aiaran (Araba). Bukatzeko, As Pontesen, Espainiako irabazi dut. Horrez gain, Espainiako Kopa irabazi nuen ere Valentzian (Herrialde Katalanak), eta, han, zazpi froga ezberdin izan ziren.

**14 urte dituzu. Noiz hasi zinen txirrindularitzan?** Txikitatik ibiltzen naiz bizikletan: 3-4 urte ingururekin hasi nintzen pedalik gabeko bizikletekin. Hortik aurrera horretan jarraitu dut, eta 10 urte ingururekin lehiaketetan hasi nintzen. Nire aitak bizikletak saltzeko eta konpontzeko denda bat du Gorlizen, beraz, bertatik dator txirrindularitzarekin dudana lotura.

**Zenbateko maiztasunagaz egiten dituzu entrenamenduak?** Astean, ia arratsaldero ateratzen naiz bizikletarekin. Ciclocrossean ordu erdi egoten naiz entrenatzen; errepidean, 2 ordu inguru, gutxi gora behera.

**Zaila egiten zaizu kirola zure bizitzako beste alor batzuek lotzea?** Ez. Esango nuke mo-



Ia arrastiro entrenatzen du Vegak. HODEI TORRES



3-4 urteaz hasi zen bizikletan ibiltzen.

**«Txikitatik ibiltzen naiz bizikletan: 3-4 urte ingururekin hasi nintzen pedalik gabeko bizikletekin»**

mentuz ondo orekatzen ditudala nire bizitzako gauza guztiak.

**Etorkizunari begira baduzu erronka berezi-  
ren bat buruan?** Saiatu nahi dut errepidean ciclocrossean lortu ditudan marka berdinak lortzen. Hori da nire hurrengo erronka. ◀




# Hirukira olgetan

© GARBINE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO  
SOLUZIOAK



## Ziripot

Lantzeko inauterietako pertsonaia ezagunenetako bat da Ziripot. Hona hemen berau, hamar bider. Ordena itzazu hamarrak handienetik txikienera, handienari 10 zenbakia emanez, eta txikienari 1, hurrenez hurren.



## Mozorro festa!


Gauza hauek guztiak inauterietako mozorroen osagarriak izaten dira. Horien artetik hiru bi bider ageri dira, zeintzuk? Bide batez, margotu itzazu denak.





## Labirintoa


Lesakako inauterietako Zaku-zahar honek Maripurtzil izutu nahiko luke, baina ihes egiten dio. Lagun iezaiozu Zaku-zahar horri harengana iristen, harrapatzen ez badu barregarri geldituko da-eta.



bbkΘ

## KARPIN FAUNA

ANIMALI BASATIEN  
BABES ZENTROA





# Zenbat ordu erabiltzen duzu mugikorra?



**EIDER SANTAROSALIA**  
URDULIZ

Egun batzuetan zentratuta banago, 5-6 ordu. Beste batzuetan, libre dudanean, 7-8 ordu. Instagram, Tiktok eta Netflix erabiltzen ditut gehienbat. Egia esan, lotsagarria iruditzen zait hainbeste denbora egotea mugikorrarekin, baina zaila egiten zait hori uztea eta kontziente izatea. Aldatu nahi dut ohitura hori.



**UXUE UNANUE**  
URDULIZ

Nik 6 ordu inguru erabiltzen dut. Ikasi behar badut, gutxiago. Instagram, Tiktok eta WhatsApp asko erabiltzen ditut. Aldatu behar da mugikorrarekin pasatzen dugun denbora ez delako ona pantailaren aurrean hainbeste denbora igarotzea. Baina batzuetan kostatzen da mugikorra alde batera uztea.



**JUAN CARLOS NEIRA**  
URDULIZ

Mugikorra 3 ordu inguru erabiltzen dut egunero, baina ez dakit asko edo gutxi den. Ez daukat sare sozialik mugikorrean eta telefonoa nahiago dut erabili egunkaria eta horrelakoak irakurtzeko. Hala ere, ez dut uste nire egunerokotasunean gehiegi erabiltzen dudarik.



**SARA GONZALEZ**  
URDULIZ

Uste dut 4-5 ordu pasatzen ditudala. Nire lagunekin konparatzen badut, denbora gutxi igarotzen dudala sentitzen dut. Instagram eta Tiktok aplikazioetan nago gehienbat. Gustatuko litzaidake denbora gutxiago igarotzea mugikorrarekin, eta horretan ahalegintzen naiz.



**FLORENCIA CASTRO**  
URUGUAY

4-5 ordu inguru erabiltzen dut mugikorra. Sare sozialetan erabiltzen dut gehienbat: WhastApp, Instagram, Tiktok, Youtube... batez ere, Tiktoken igarotzen dut denbora gehien. Asko gustatuko litzaidake telefonoa gutxiago erabiltzea, hala ere uste dut jendeak nik baino askoz gehiago erabiltzen duela.



**ANTONIO REYES**  
MEXIKO

Donejakue bidea egiten ari naiz, beraz, asko erabili behar dut mugikorra: garraiorako, ostaturako... behar-beharrezkoa dut. Oso tresna erabilgarria da, baina batzuetan ordu asko pasatzen ditugu horregaz, nik 6-7 ordu batzuetan. Batez ere, hirietan ikusten dut gehiegi erabilerara hori.



**SILVIA BUJEDO**  
ALGORTA

Normalean oso gutxi erabiltzen dut mugikorra: bakarrik Facebook, Instagram, WhatsApp eta horrelakoren bat, baina ez dut ohitura handirik. Egunean 2 ordu inguru erabiltzen dudala esango nuke. Niretzako ez da asko, nire semeek askoz gehiago erabiltzen baitute, gehiegi, esango nuke.



**JOAQUIN PONTE**  
GETXO

Askok erabiltzen dudala esango nuke, baina ez dakit zehazki zenbat, 3 ordu inguru; ez dakit hori asko edo gutxi den. Musika eta irrati asko entzuten dut, baita WhatsApp ere. Mugikorra ordenagailu pertsonal baten modukoa da, beraz, posta elektronikoa eta horrelakoetarako ere erabiltzen dut.





**Nahia  
Egilior  
Ellakuria**


**Nongoa**  
Plentzia.

**Adina**  
30 urte.

**Zertan dabil**  
Lanean.

**Noiz heldu  
zinen?**  
Duela sei urte.

**Noiz arte  
bertan?**  
Aurten espero du.



**Lurraldea**  
Kanaria Uharteak.

**Azalera**  
7.447 km<sup>2</sup>.

**Hiriburua**  
Santa Cruz  
Tenerifekoa eta  
Las Palmas Kanaria  
Handikoa.

**Biztanleria**  
2.247.927 (2024).

**Hizkuntzak**  
Gaztelania, baina  
XVIII. mendera arte  
guantxera izan zen  
uharteetako jatorrizko  
hizkuntza.

**Moneta**  
Euroa.

# «Kanaria Uharteak eguzkia eta hondartza baino askoz gehiago dira»

IKER RINCON MORENO ▶

**P**lentzia atzean utzita, Kanaria Uharteetara salto egin zuen Nahia Egilior Ellakuriak duela 6 urte. EHUn Medikuntza ikasketak amaitu eta BAME azterketa egin ondoren, Euskal Herrian Anestesiologian eta Bizkortzean espezializatzeko plazarik lortu ez zuenean hasi zuen abentura. Zalantzarik gabe, Kanaria Handia aukeratu zuen gainerakoen artean, prestakuntza ez ezik, erabateko aldatze bat ere bilatuta. Hala, gaur egun, Las Palmas Kanaria Handikoa eta Gomerako San Sebastianen artean bizi da, lanaren arabera.

Aitortzen duenez, gaztelania menperatu arren, tokikoen berba egiteko bizkortasunak, azentu ezberdinek eta esamolde propioek erronka bat ekarri zioten hasieran. Hala ere, kanariarrak pertsona irekiak, atseginak eta bizitzaz lasai gozaten dutenak direla dio, eta erraza dela haiekaz elkartzea.

Gastronomian, Nahiak aitortu du Kanarietako janaria ez dela bere pasiorik handiena, baina plater tipikoak probatu ditu, hala nola

patatak mojoagaz, gazta frijitua, gofioa, berropotajea eta sancochoa. Edariei dagokienez, rona, bertako garagardoak (Tropical eta Dorada) eta Clipper freskagarria nabarmendu ditu.

Kanaria Uharteak eguzkia eta hondartza baino askoz gehiago direla azpimarratu du plentziarrak, eta artxipelagoaren aniztasuna sakon ezagutzeko aukera izan du: Gomerako Garajonay bidezidor berdeetatik hasi eta Kanaria Handian hazten diren platanondoetaraino. Gainera, «bizitzako ilunabar politenak» ezagutu ditu, eta La Palman zeru izartsua ikusi du, beste inon ez bezala; Fuerteventuran, ur kristalinoetan igeri egin du, eta «munduko inauteririk onenak» eta Gay Pride jaiak bizi izan ditu, besteak beste. Gomeran, guantxeen herentziak txundituta utzi du plentziarra, bereziki Gomerako txistua, UNESCOk aitortutako txistukatutako hizkuntza, oraindino ere eskoletan irakasten dena.

Sei urteko abenturen ondoren, aurtun gurea bueltatzeko asmoa du Nahiak. Hala ere, iragarri du ez dela bakarrik itzuliko: «Bikotekide kanariarra topatu dut, eta nirekin bueltatuko da etxera».



### Himno independentista bat Areta auzoan 1880-1905



MEMORIAS DE GETXO.

**X**IX. mendearen amaieran, Areta auzoa Getxotik bereizi eta udalerririk independente bihurtzeko saiakerak egin zituzten hainbat auzokidek eta dirudunek. Karla Llanosek *Memorias de Getxo* bere blogean gogoratu duenez, lehenengo saiakera nabarmena 1880an izan zen, Eduardo Aguirrek, Espainiako Kongresuko diputatu eta Aguirre familiako kideak, Areta Getxotik bereizteko proposamena aurkeztu zuenean. Mugimendu hori batez ere Santa Ana inguruko hirigintza interesek bultzatu zuten, non Aguirre familiak inbertsio garrantzitsuak zituen.

Ekimenak Getxoko beste auzo batzuen desadostasuna piztu zuen, eta horregatik, Pedro Bonifacio de Sarria lehenengo alkateordeak gidatuta, Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa eskatu zuen proposamena atzera botatzeko, 1888an. Udalak argudiatu zuen Aretan inbertsio handiak egin zituela, hala nola errepide berriak, eskolak, osasun-zerbitzuak eta argiteria publikoa, eta, beraz, ez zela egokia emantzipazioa onartzea. Azkenean, proposamenak ez zuen aurrera egin.

Saiakera independentistek aurrera egin zuten, eta Adolfo G. de Urquijok zuzendutako *Junta de Reformas de Las Arenas* izeneko erakundeak auzoan hainbat hobekuntza egiteko 60.000

pezetako mailleua proposatu zuen, baina eztabaidak piztu ziren obren kudeaketari buruz, Santa Ana inguruari gehiegizko preferentzia ematen zitzaiolakoan. Horrek berriro ekarri zuen Areta Getxotik bereizteko aukera mahai gainean jartzea. Getxoko Udalak, ustekabeen harrapatuta, Aldundiari kontsulta egin zion egoerari aurre egiteko. Azkenean, saiakera horiek ez ziren gauzatu, eta Areta Getxoko parte izaten jarraitu zuen. 100 urte pasa dira ordutik, baina bereizte-prozesu horren lekuko izan zen abesti bat ekarri digu gogora Llanosek. ◀

*«...El pueblo de Las Arenas, que a Getxo no pertenece, le vamos a gobernar de manera independiente. Alcalde Simón Ugarte y secretario Batelera. Serenos Silbote y Manta; y de alguacil Irineo y a Lasuen, y a Mendia, para que el pueblo ande bien, por si acaso hay viajeros sospechosos en el tren. Y Don Pedro de Oliver, de recaudador de multas, y la Casa Ayuntamiento será la tasca de Lucas...»*



# hirukalagunen txokoa

# Sari ederrak eskura!

Zozketa

## ***Argia iraungi zen tokia***

Mikel Begoña eta Igor Sarralderen nobela grafikoak misio harrigarri batean murgilduko zaitu. Ez galdu aukera eta bilakatu zaitez istorio txundigarri honetako protagonista!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 23a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



Zozketa

## ***Epaiketa arrotzari antzerkia***

Otsailaren 28an, Muxikebarrin egingo den Barandi Produccionesen antzerkia da *Epaiketa arrotzari*. 13 urtetik gorako gazte eta helduentzako pieza da. Ikusteko gogoak dituzu? Animatu parte hartzera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 23a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



Zozketa

## ***BBK Karpin Fauna Abentura***

BBK Karpin Fauna Abenturarako sarrera bikoitzak zozkatzen ditugu. Animaliez eta naturaz inguratuta familiagaz egunpasa polit batez gozatu gura duzu? Bada, animatu eta har ezazu parte!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 23a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



## **Zelan egin HIRUKAlagun?**

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)

**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.







Uribe Kostako  
informazio guztia  
zure eskura

